TTiPi-TTAPA

1987.ko Abuztuà

20.zen

SAGARDOTEGIAK BAPO!

Sagardoa zaitugu
asko maitatua
euskaldun txokoetan
guztiz onartua
zahar eta gazteak
denak probatua
bertsolari guztiak
kantatutakua.

Kupel eta barrikak
miatzen dituzte
hau ona zegok eta
hori ez hainbeste
konturatu orduko
betexeak daude
kantari eta parrez
etxera datozte.

Bakalloa jan eta
sagardoa edan
kontu zarren artean
xurrutari eman
handik atera eta
kanpora segidan
ateratzen dirade
ahal dute moduan.

Mª Jesus Zugarramurdi. Arano.

non- zer .... edan..

GAIAK, ELKARRIZKETAK, ...
24. Erretzaile neofito bateri galde
25. ARKUPE. Adintuen elkartea.
29. Oposizioak.
30. Bi anai kisugintzan.
34. Sunbillako agintari putreak.
36. Europa, desertu bat?
37. Maldaerrekako osasun diagnostiko

IPUIAK, BERTSOAK, KOMIKIA,...
38. Erreka eri.
40. Karrunko.
42. Ikustezinezko untxia.
43. Goizuetaren deskribapena.
44. Zuhaitz tristea.
45. Kepa bere txakurrarekin.
47. Bertsoak.
Komikia: Bakarrizketa" Asisko.

BERRIAK
2. Bera.
4. Etxalar.
6. Arantza.
8. Igantzi.
9. Lesaka.
12. Doneztebe.
16. Zubieta.
19. Zugarramurdi.
20. Goizueta.
22. Baztandarren Biltzarra.

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

Ttipi-Ttapa aldizkaria.
Beheko Plaza. (Alondiga)
LESAKA

BERA



Alkaiagako AEKelarren.

HAUTESKUNDEAK

Pasa berri diren hauteskundeetan "Herri Alde" izeneko kandidatura independientea suertatu da irabazle, 600 boto lortu dituelarik. Ondotik Eusko Alkartasuna eta hirugarren Herri Batasuna. Ondorioz, talde bakoitzak zinegotzi hauek atera ditu:

-Herri Alde:
Iriarte, Igoa, Etxebeste eta Iturria.

-Eusko Alkartasuna:
Fagoaga, Gloria, Ataun, Senper. 599 boto. Aipatu behar, Gloria, orain arte H.B.ko zinegotzia izan dela.

- Herri Batasuna:
Iosu Goia, Martzial Teiletxea, "Kotto". 494 boto. Azkeneko herri hauteskundeetan baino 75 boto gehiago.

Gure ustez, Herri Alde kandidaturak, PSOE eta UPNren botoak jaso ditu. EAk berriz, EA, CDS, EE eta PNVren botoak; eta HBk berriz, Batzarre eta HBrenak. Zenbakietara begiratuz, UPN eta APren botoa %78 igo da. Bortzerri mailan berriz PSOEren botoa %20 igo da eta HBrena %10. Emaitza hauek ikusi ondoren eta honela jarraituz, etorkizun beltza ikusten dugu euskaltzale guztiontzat.

	HB	EA	UPN	PSOE	HERRI ALDE
EUROPA	462	507	215	254	
NAFARROA	453	533	189	252	
HERRIKOA	494	599			600

FIRMA BILKETAK

Herri Batasunak orri bat banatu zuen herri mailan zera salatuz:
EA eta Independientes taldeen jokaera AEKk egindako eskaeraren aurrean.

Jakingo duzuenez orain dela gutti ospatu zen Alkaiaga auzoan AEKelarre besta. Herriko Etxeari eskatu zitzaion pilotalekua erabiltzeko baimena, euria egingo balu, alternatiba bezala. Eta zein erantzuna jaso zuen? Ezezkoa, aitzaki hau emanez: AEKk antolatutako azkeneko gau-pasan kalte frango izan zirela eta auzoko jendea biziki kexatu zela, firma batzu bilduz.

AEKk ere firma bilketa egin zuen eta 200 baino gehiago bildu zituen, baina hala ere Herriko Etxekoek beure posturan jarraitu zuten.

Dirudienez hemen, firma batzu bertzeak baino indar haundiagoa dute!!

BESTAK

Eta Gau-pasa kontutan hasi ga-
enez, bestak ere aipatu behar
itugu. Laister hementxe dugu
buztuaren lehena, aurtengo bes-
eei hasiera emateko abuztuaren
eia arte iraungo dutenak.

Musika taldeen artean Jator,
ker, Gaubela, Koxka, Joxelu A-
aiak eta Minxoriak etorriko di-
a.
Pelota partidoak, Txarangak,
aiteroak, Trikitixa, miattuak,
ailasoak, Sebastopoleko Titiri-
eroak, txirrindula probak, dan-
zariak eta abar luze bat. Ospa-
izun berrien artean zera aipatu
behar: astearteen eta igerileku-
n, goizeko 10,30etan igeriketa
roba bat izango dela.

Mozkorrak, gau-pasa egindakoak
ta igeri ez dakigunak hobe ez
parte hartzea, ze ittotzeko a-
rriskua dugu eta.

"KAUKOBORDA" KISKALIA

Gogoratuko duzue nola Ekainaren zazpian, izugarrizko haizeak inguru hauek astindu zituen, ez da: Ba Beran kalte serioak egin zituen; zuhaitzak, argi posteak eta abar bota zituen. Baina okerrena zera izan zen: "Kaukoborda" baserria erre zela, deus ere ezin izan zutelarik salbatu, zera bertzerik: hazindak eta siestan zegoen umetxo txikia.

Hauei laguntzeko asmoz bilera bat izan zen eta honen ondorioz

IKASTURTE BERRIA

Eguzkia, igerilekua, uda... bai Berako umetxo guztiak oporretan daude. Bainan hala ere, datorren ikasturtea prestatzen ari dira eta jakin dugunez, Rikardo Baroja ikastetxean 11 haurrek eman dute bere izena euskarazko taldean eta Ikastolan berriz 18 haurrek.

diru eskian ibili dira eta jaialdi bat ere antolatu da. Jaialdi honetan Gure Txokoako dantzariak eta Lesakako Trikitilariak parte hartu zuten.

SEGAPOTO IRRATIA

Hemen ere ari gara mantso mantso zerbait egiten. Lehengo lokalak kondiziorik betetzen ez zuela eta, bertze bat eskatu genion Herriko Etxeari, honek ukatu egin zigularik. Gero AEKkoak beraiek erabiltzen duten gela bat eskaini ziguten Udaletxeari bertze bat eskatuz, eta baita lortu ere. Beraz arazo hau moldatu ondoren, teknika aldetik prestatzen ari gara nahiz eta DYArekin arazoak izan. Bortz herrientzat antolatu nahi dugunez, Frain mendian antena bat jartzeko asmoa dugu eta DYAk bere antena han duenez, beraiei leku ttiki bat eskatu genion eta hauen laguntza zalantzan dago.



Kaukoborda baserria.

ETXALAR

HAUTESKUNDEAK

Ekainaren 10ean izandako hauteskundeen emaitzak ezagunak izan arren, merezi dute komentario labur bat. Alde batetik udal hauteskundeak, bertzetik, Nafarroako eta Europako parlamentuetarakoak.

Udal hauteskundeen emaitzak dudarik gabe, aldaketa garrantzitsua suposatzen dute Herriko Etxearen funtzionamenduarentzat. Lehen aldiz Etxalarren, kandidatura aurrerakoi eta abertzale batek gidatuko du Herriko Etxea. Orain arte agintean zegoen kandidatura eskuindarra, hain maite zuen poltronatik desplazatua geratu da. Hasteko, ez dutelako kandidaturarik presentatu; zerrenda betetzeko eta aurpegia emateko jenderik ez zutelako edo... agian, bere burua galtzaile ikusi baino lehen, nahiago dutelako ez presentatu. Dena den ziur ez dutela gogo onez asumituko eta onartuko orain sortzen den egoera berria. Eta hori ziurtatzeko guztiz adierazgarria izan zen udal hauteskundearen emaitza.

Herri Taldea	267
Boto zuriak	127

Nafarroako eta Europako parlamentuetarako hauteskundeen emaitzak berriz, Herri Batasunari eman zioten nagusitasuna. Emaitza hauek, azkeneko hauteskundeetan HBk lortutako garaipenaren sendotzea nabaritzen dute.

KOOPERATIBA

Pentsu kooperatibaren almazena, denbora gutti barru hasiko da funtzionatzen. Barnean errota eta ziloak izango ditu eta martxan jartzen denean, Etxalarko sozioez gain, bertze herrietako nekazariei ere hornitzeko kapazitatea izanen du. Pentsuez aparte, nekazaritzarako tresnak, pozoinak, abonoak, e.a. izanen ditu salgai.

Hala ere, azken egun hauetan zer erran aunitz sortu ditu herritarren artean, kanpoko pareten koloreek eta itxurak. Jendea kezkati dabil nola gelditzen ari den ikusita. Aunitzentzat, Etxalarren kolore horia eta gorri iluna ez dira batere egokiak patak pintatzeko, etxe guztiak xuriz pintatuak bait daude. Hori dela eta, herritar franko zuzendu zaie kooperatibaren arduradunei heuren kezkak adieraziz, eta aldi berean beldur dira, oraingo hau hortan gelditzen bada, ez ote den prezedente bat izanen etorkizunean egin daitezken etxe berrientzat.

Dena den argi dagoena zera da: Etxalarko estilo urbanistikoa errespetatu behar dugula denok. Hasten badira batzuk paretak horiz pintatzen eta bertzeak berdez laister gure herriaren itxura ona arras desegina gelditukо dela.



"Usoa" pentsu kooperatiba.



Etxalarko Eliza.

ELIZA MOLDATZEN

Ez zegoela sobera ongi eta, moldatzen ari dira eliza. Kanpotik nahiko txukun ikusten bada ere, barnetik ez ordea. Solairua berritu, paretak pintatu, koroa ... ba omen zegoen non moldatu. Hori dela eta, mezak Santakrutz ermitan ematen dituzte azken aldi hontan eta, dirudienez, bestetarako berriro elizan hasiko dira.

Jardinetan ikusten diren hilarriak berriz, duela urte batzu aurkitu zituzten elizako almazen baten oinarrietan.

Bi mende eta gehiagoko historia duten hilarri hauek, hortxe daude exposizio moduan; gure herriaren iraganaren testigu.

ALBINTE BERRIA

Ttipi-Ttapa hau zure eskuetan izan orduko, albinte berria izendatua egonen da, hautatzeko probak, uztailaren 29an bait ziren. Lanpostu hori betetzeko, zortzi edo bederatzi kandidatu aurkeztu dira. Kandidatuek examen teoriko-praktiko bat gainditu behar zuten eta tribunalaren eritziz proba bakoitzatik puntu gehienak lortu dituenak beregnatuko du lanpostua.

Tribunala hauexek osatzen dute: Berako Lanbide eskolako zuzendaria, Elizondoko Lanbide eskolako zuzendaria, Peritu agrikola bat, Herriko Etxeko kontzejal bat eta alkateak.

ETXALARKO FATXAK ETA....-AK, teknika terrorista eta subertsiboak lantzen hasi dira. je, je. Momentuz pintada zirriborrotsuak ...uau!

Hautekundeen emaitzak ustegabean harrapatu ditu nonbait, nola erreakzionatu ez dakitela. Bakarren batek, astoenak seguru aski, honako amenaza edo mehatxua pintatu zuen ikastolako atzeko paretan: "Tillegui ¡ojo! el cura + ¡ojo! o acabaras mal"

Erantzuna berriz berehala agertu zen lehengoaren gainean pintatua: "Fachas estais nerbiosos".



ARANTZA

UDALA OSATUTA

Uztailaren 3an osatu zen Arantzako udala. Udalaren buru edo alkate Josu Larretxea hautatu zutelarik eta bere ordezko berriz Juan Miguel Almandoz. Komisioak ere bilera bereen osatuta gelditu ziren, konposaketa hau dutelarik:
Mendiak, Nekazaritza eta Urbanismoa- Joxe Austin eta Pantaleon.
Sanidadea eta Serbitzuak- Juan Miguel eta Inaxio.
Hazienda, Kultura eta Informazioa- Xabi eta Josetxo.
Bestak- Pantaleon eta Joxe Austin.

Erran beharra dago hemen aipatzen ditugun zinegotzi hauek komisio buruak edo arduradunak direla baina, komisioa parte hartu nahi duen edonorrentzat irekita dagoela. Ia bada animatzen zareten zeren udal honek dioenez, behar beharrezkoa baita jendearen partaidetza udalak ongi eta herriaren gustora funtzionatu dezan.

MEDIKUAREN AUKERAKETA

Seguruenik, lerrotxo hauek argitaratu orduko baretuak egongo badira ere animoak, sekulako haserrea sortu du, herriko jende batzuengan, medikuaren aukeraketak.

Historia pixko bat eginez erranen dugu lehengo medikuak, Mikel Gartziak, eszedentzia hartu zuela duela bi urte. Epea bukaturik plaza bakante utzi zuen. Hau dela eta Arantza eta Igantziko udalak plaza betetzeko "oposiziotara" deia egin zuten.

Azterketetan Manuel Eziolaza Carvallo atera zen garaile. Gabriel Txoperena, lesakarra, oso gertu 1'9 puntutara atera zelarik. Beste bost mediku presentatu baziren ere pixko bata atzerago gelditu ziren azterketetan.

Zerk sortu ditu bada haserreak?
Ba, bigarren atera dena azterketetan, Gabriel Txoperena oso ezaguna da Arantzan. Alde batetik lesakakoa delako eta bertan familiartekoak badituelako eta bestalde, azken bi urte hauetan Arantzan aritua dugu lanean, Mikel Gartziaren eszedentzia betetzen. Gauza bat dela eta bestea dela, sinpatia franko irabazi ditu Arantzan eta bere zaleak biziki nahi zuten bera geldi zedin plazarekin. Hala ere uste dugu ez direla bidezkoak heuren eskakizunak, bere aldeko faboritismoa eskatzen bait zuten batere lotsarik gabe. Bai, Gabrielen oso gertukoak, hor ibili dira erranka herriko alkateak nahi izanez gero berari eman ziezaio kela puestoa eta abar. Euskarare froga alkateak zuzentzen zuene gero hor "teje-maneje" egin zeza kela adieraziz, alegia.

Hau dela eta orain arte udale txean zegoen Herri Taldeak ater du orri bat gauza bere lekua utziz eta azterketa prozesua nol izandu den agertuz.

Arantzako Herri Batasunare eritziz berriz: "ulertzen dug Gabriel eta bere zaleen mina baita ere presentatu eta lanpos turik gabe gelditu diren beste bost medikuena ere. Hala ere uste dugu tribunalaren erabakia eta bereziki alkatearena, honendako

izan bait dira irain gehienak, oso zuzena izan dela; bakoitzari berea emanez".

Uste dugu bere burua demokratatzat daukan edonork iritzi honekin ados egongo dela. Faboritismoa eta holako hitzak kazikismo kutsua bait daukate gehiegitan.

HAUTESKUNDEAK

Orain arte, azken bi legislaturetan, bi talde aurkeztu badira ere oraingoan kandidatura bakarra aurkeztu zitzaigun Arantzan. Beraz, hauteskundeen emaitza aldez aurretik jakina bazegoen ere interesgarria izango da zenbakiak ematea, jakiteko presentatu den taldeak Herri Batasunak hain zuzen, izan duen errespaldoa.

HB botoak	285
Boto Nuloak	162
Txuriak	2

Erran beharra dago HBk lehengo hauteskundeetan zuen boto kopurua mantendu duela; bestalde 162 boto nuloak adierazten dute orain dik oposizioa tinko dagoela nahiz eta oraingoan talde bat gauzatzeko gai ez badira izan ere.

Hauteskunde hirukoitza honetan, benetan, HB atera zaigu garaile hala ere aipatuko ditugu Nafar Parlamenturako emaitzak, izan ere interes berezia bait dute gure herriarentzat. Hain zuzen ere, Vizente Arocena, lehen alkate izana eta azken legislaturan oposizio burua, presentatzen bait zen Nafar Parlamenturako PNVren zerrenda buru.

Gizon honek, Nafarroa mailan izan duen porrotak ez zuen ez ustean harrapatuko bere herriko biztanlegoaren gehienak, herrian bertan ere konfidantza txikia adierazi bait diote kutxetako emaitzak, galtzaile irten zelarik.

HB	187
PNV	173
EA	40
AP	30
Besteak	109

EULI GAIXTOAK

Udara iritsi zaigu eta hor gabiltza baserritarrok jo ta ke belarretan, gorputz gehiena biluzik, galtza motzetan, bi txori tiro batez hilteko asmoz, noski:

Hau da, lanak egin eta bidenabar kolore beltzaran ederra hartuz, asteburuan ligatzeko, je, je, je.

- Ze kolore ederra duzun! Oporretan edo...

- Bai, Benidorren bi aste pasatu ditut.

- Ja, ja... eta zer han ere badira euliak edo,... gorputz guztia atsikituta daukazu.

Beti zerbait behar, dena izorratzeko eta oraingoan euli alu horiek. Beti ere nahiko gaixtoak eta jasan ezinak izaten badira ere aurten izugarrizko plaga azaldu da, desberdinak, txikiagoak eta gaixtoagoak; heuren autsikiak hankak handitzen bait dituzte. Horra ba gure "enkanto" guztia zulora, urte bat gehiago mutil zahar.

Hau ere jasan beharra baserritar gizajoak. Oraingoan ere ZUBIETARRAK bidali ote dituzte?

IGANTZI

Igantzi.

HAUTESKUNDEAK

Joan den Ekainan izan diren hauteskundeetaz bada zenbait gauza aipagarririk. Alde batetik, berriro ere talde herrikoi batengan jarri dutela bere konfidantza herritarrek.
Hauexek izan ziren emaitzak gutti gora behera:

Herri Taldeak 210 botorekin 4 zinegotzi lortu zituen: Juan Jose Txoperena, Severino Retegi, Oskar Txoperena eta Felisa Goienetxe. UIY (Unión de Independientes de Yanci) taldeak 3 zinegotzi: Jose Mª Sanz (alkate ohia) Andres Petrikorena eta Jose Mª Aldabe.

Badirudi lehengo alkateak agindu zituen gauza guziak ez dituela bete edo, zeren gauzak agintzea gauza erraza da. Betetzea da bertze kontua...
Bertze aldetik talde abertzaleek aurrera egiten dute gainontzeko hauteskundeetan. EAk lortu zuen gehiengoa, HB ondotik geratu zelarik. Aintzineko urteetako emaitzak ikusirik ez dugu txarra oraingo hau.

PALAZKO PILOTA TXAPELKETA

Joan den uztailaren 11ean jokatu ziren Igantziko aurtengo Pala txapelketako finalak. Bai, ongi erran dugu finalak, zeren emakume eta gizonen arteko txapelketak izan ziren. Hau berria genuen aurten eta lehendabiziko urtea izateko emaitza ezin hobea.

8 bikotek hartu zuten parte gizonezkoetan eta 6 berriz emakumezkoetan. Maila nahiko altua izan da bietan ere, baina batez ere emakumeek jendeak espero ez zuen jokoa erakutsi dute.

Hauexek izan ziren finala horietan parte hartu zuten bikoteek:

Emakumezkoetan: Karmele Etxeberria eta Karmele Unanua, Blanka Matxikote eta Beatriz Lizardiren aurka.

Ikaragarrizko partidua jokatu zuten laurek, atzelariek batez ere baina bi Karmelek azkenean lortu zuten aldea ezin izan zuten gaiditu bertzeek. 30-26.
Pozgarria benetan emakumeak horrelako gauzetan parte hartzea ikusten eta jendearengan sortu zuen ikusmina hagitz handia ere.

Gizonezkoetan: Zelaieta eta Sagarzazu, Hita eta Zelaietaren aurka. Egia erran partidu polita ikusi genuen erdia arte baina handik aintzinera garbi kendu zieten Zelaietak eta Sagarzazuk partidua bertzeei. Biek oso seguru jokatu zuten eta hortik etorri zen partiduaren aldea 35-22

Ondoren eta ohi den bezala afare bat izan zen sariak hantxe bertan banatu zirelarik. Aupa!



LESAKA

Lesakako Plaza zaharra.

PROMETITU BAI BAINA GERO ZER!

Aisa da prometitzea gauzak egiten ari diren bitartean baina gero ikusi behar noiz bukatzen diren.
Bai hori pasatu zaie E.Akoei bere hauteskunde kanpainan, ongi erraten zuten bezala, hau egingo dugu, hori eta hura, eta azkenena ba beti bezala deus.

Guttienez ez dezatela deus erran, zeren San Fermin bezperan hortxe ibili ziren aski larri gauzak biltzen guttienez itxura ona emateko plazari.
Orain ikusi behar noiz bukatu ko diren obra horiek, zeren ez duzue pentsatuko kiosko galanta hori horrela geldituko denik!.

P.N.V.koek PIPER POTUA MAITE

Joan den ekainaren 30ean eta herriko etxeko partaide berrien kargu hartzearekin batera, eta sekretariaren partetik sesioa bukatutzat eman ondoren, Herri Batasunak, eztabaidatzeko puntu batzuek atera zituen, San Fermink gainean zirela ikusurik. Puntu hoietako bat, Ikurriñari zegokiona zen, korporazio berriari Lesakako herriko etxean ikurriña falta zela oharterazteko Iruñako Juzgadoan bait dago Santi Brouarden hilketaren egunean Guardia Zibilak kendu zutenetik.

Beraz, beste bat berria erostea exigitzen zen, Iruñeako Juzgadoan dagoena berreskuratzeko posibilitaterik ez zegoela ikusirik.

Behin eta berriz bestak gainean zirela azpimarratuz, eta behin eztabaidan sartu ondoren, P.N.V., aurka jarri zen ikurriña berri bat erostea eta herriko etxean jartzea, probokazio bat sortzea zela erranez, eta bestatako eguna arriskuan jartzea zela.

Hor ikusi zen P.N.V. aurka zegoela eta E.A.koek berriz bere ixiltasunarekin adierazten zutena, P.N.V.koekin bat zirela, noski!.

Hau ikusirik herriko bestatan Lesakako bandera soilik jartzea erabaki zen, nahiz eta H.B ez ados egon, zeren honek exigitzen zuena hiru banderak ezartzea zen, hau da, Lesakakoa, Nafarroakoa eta Ikurriña, Espainola ezarri gabe.

Behin bestak pasa ondoren P.N.V.ren jokaera edo konportamendua salatu behar da, alkatea buru dagoela, ze uztailaren 7an, San Fermin egunean, eta denon sorpresarako, Herriko Etxeko balkoian lau banderekin agertu zen, hauen artean piper potua zegoelarik, forma horretan benetako kazikada batetan sartuaz. Honen aurrean H.Bko zinegotziek alkatearen aurrean aurkeztu ziren, piper potua kentzeko exigituz.

Eztabaida gogor bat izan ondoren eta berriro E.A.ren ixiltasunarekin, alkateak bandera guziek kentzea agindu zuen, egite horrekin alkate jaunak eta (P.N.V) errepresentatzen duen taldeak frogatzen gaitu bere talante Demokratikoa.

ARRANO ELKARTEA

Joan den urteko urrian hasi ziren lanen emaitzak, aurtengo San Ferminetan ikusteko aukera ederra izan dugu.

Arrano elkarte hau ez elkarte gastronomiko bat hutsean geldi-tzeko asmotan, baizik eta kultura munduan murgitzeko asmotan. Erran dezakegu dagoeneko 70 bazkide badaudela eta San Ferminetan bezala funtzionatzen badu beti, ez dela batere gaizki egongo.

Momentuan lehenengo solairua bakarra dago montatua, baina pentsatzen da hemendik denbora guttira beste sorpresaren bat emango digula.

Bortziriko udaletxetarako mozioa

GAU-PASAK GALERAZI NAHI DIZKIGUTE.

1987.go Maiatzak 9an Bortziriko A.E.K., Segapoto Irratia eta Ttipi-Ttapa aldizkariak gau-pasa bat antolatu genuen Berako enparantzan, eskualde honetarako irrati bat lortu ahal izateko diru apur bat ateratzeko asmoz.

Jaialdia normaltasun osoan igarotzen ari zen bitartean goardia zibilak agertu ziren beren tenientea buru zutela. Bertan ordu pare bat egon ziren probokatuz eta giro txarra sortuz eta bitarako berbena bukatu behar zela erranez. Gero hango bi laguñei karneta hartu zieten.

Orain bi lagun hauetako bati ezpediente bat ireki diote miloi bateraiñoko multa sar diezaioketela adieraziz. Expediente hau ez zaigu inolaz ere bidezkoa iruditzen, hemen orain arte gau pasa aunitz egin bait dira inongo multarik ordaindu gabe. Eta ez da inoren burutan sartzen lagun batek diru kopuru bat ordaintzea eskualde batetako kulturaren alde lan egiteagatik.

Beraz, zera eskatzen dugu:

1.- Mikel Legarra Legarrari irekitako espedientea bertan behera uztea eta itxitzea.

2.- Tenente horrek daraman jokaera salatzea eta gehiago gerta ez dadin gobernadore zibilak behar diren neurriak hartzea.

3.- Mozio hau onartu eta gobernuak Nafarroan duen delegatuari bidaltzea.

Uda

Iaz, Lesakan A.E.K.ren eskutik antolatu zen ikastaroko esperientzia euskara ikasten ari direnei berriz er eskeintzeko asmoz, aurten ere hemen dugu beste ikastaro berri bat. 65 ikasle inguru bildu dira Lesakako Irain eskolan dakiten euskara praktikan jartzeko eta, noski, gehiago ikasteko asmoz.

Baina, zein da A.E.K.k ikastaro hau antolatzearen arrazoia? Kontutan izan behar dugu Euskal Herrian, zoritxarrez, badaudela euskara nahiko edo guztiz galdua dagoen herri eta hiriak. Gasteizen, adibidez, kaleetan euskara entzutea, ezinezkoa ez bada ere, oso zaila da. Bilbo ere egoera berdintsuan aurkitzen da eta horrela beste herri asko.

Hau dela eta, bertako biztanleek euskara ikasi nahi dutenean eta honetan hasten direnean be-

ikastaroak AEKn

raien burua oso egoera larrian ikusten dute hori praktikan jartzeko, hau da, hitzegiteko.

Aukera hau eskeintzeko A.E.K.k Lesaka aukeratzen du ikastaro hauek aurrera eramateko herrietariko bat bezala. Lesaka herri euskaldun bat dugu; bertako kaleetan euskara entzutea eguneroko gauza arrunt bat da eta ikastarora etortzen direnek euskaraz mintzatzeko aukera garbi bat dute beraien eskuetan. Era berean euskal giroan sartzen dira eta euskal kultura somatzen dute. Beraz, euskara ikasi nahi duten hoiek herriko jendearekin harremanetan sartzea eta euskaraz mintzatzea da ikastaro hauek hemen antolatzearen arrazoia.

Bestalde, ikasleek, herrian egin dezaketen bizitzaz gain, eskolako eguneroko ekintzak ere badituzte. Kontutan izan behar dugu bertan bizitza normal bat daramatela: jeiki, gosaldu, bazkaldu garbitu... Beraz, ikastaroarekin ematen diegun aukera zera da: etxean, beraien herrietan egiten dituzten eguneroko ekintza guzti hauek euskaraz gauzatzea.

Barnetegiko aldizkariaren partaideak.

Hau da lana, hau! Kanpotik begiratuta oporretan gaudela dirudi. Baina ez pentsa, egun osoan lan egiten ari gara. Goizeko bederatzietan klaseak hasten dira. Goizeko klaseak ez dira arratsaldekoak bezalakoak. Goizekoetan gramatika, mintzamena, irakurmena... lantzen dugu eta arratsaldeko klaseetan, lauretatik seiak arte, taldeko tailerrak egiten ditugu. Sei talde sortu ditugu lan hauek egiteko: antzerkia, bideoa, barruko irratia, diapositibak, txontxongiloak, aldizkaria. Talde bakoitzean hamabi bat gara.

Ikusten duzuenez, ez gara denbora galtzen ari, euskara ikasten baizik. Aurrez ikasi dugu gure herrietan, baina oso inportantea iruditzen zaigu barnetegi bat egitea ere, eta bereziki herriko jendearekin euskaraz mintzatzea. Horregatik zuen laguntza oso inportantea izango da guretzat. Espero dugu elkar ulertzea. Eskerrik asko.

DONEZTEBE

DONEZTEBEN III. ASTE KULTURALA

Maiatzak 9tik 17ra bitartean Donezteben kultur ekintza ugari burutu ziren III. aste kulturala ospatzen zela eta. Hasiera rock jaialdi baten bidez eman zen, bertan, nahiz eta ZENZEROCK eta 2112 taldeak iragarririk egon lehenak eta LINEA 2 parte hartzaileak izan zirelarik. Jende gutti inguratu zen, eguraldiarengatik, euria hasi bait zuen eta erdian utzi beharra kontzertua, behar bezala akitu gabe.

Baina, benetazko ekitaldiak astelehenean hasi ziren arratsean lehen hitzaldia bait zegoen, eskolako liburutegian, gaia "SORGINKERIA", eta hizlaria J. Txueka. Gaia benetan interesgarria eta atsegina, hitzak ikusentzutezko montai batez lagundurik bait zeuden. Hitzaldiaren bukaeran elkarrizketa sortu zen hizlaria eta ikusentzulegoaren artean, zenbait puntuz ukituz: Itturengo prozesua, Elizaren papera sorginkeriaren munduan,... Aipatzekoa da jende ugari bildu zela bertan eta gehien bat inguruetako herrietakoak.

Biharamunean, hau da, astearteau, mendizaleei eskeinitako ekitaldia zegoen antolaturik: KARAKORUM, Asiako mendikateetara - joandako espedizionari batek emana, Gregorio Arizek, hain zuzen. Hitzaldi polita, atsegina eta joan ginenon gustokoa suertatu zen honako hau, espedizioaren berri eman bait zigun eta honez gain Pakistan inguruetako zenbait berri ere. Jende ugari hemen ere eta irtetzerakoan eritzi bakarra "oso polita".

Hala ere asteazkenean dugu jende multzo gehiena erakarri zuen ekitaldia: zenbait pelikulen emanaldiak arratsalde osoan, hasi 4etan eta gaueko 11 terdiak arte. Bitarte hortan honako pelikula hauek ikusteko aukera izan genuen: "Los goonies", "Tres solteros y un biberon" eta "La vida de Brian".

Udaletxean berriz, zeramika erakusketa paratu zen eta ontzitxo polit batzuk ikusteko aukera izan genuen. EPA-koei gure eskerrak eta jarrai dezatela horrelako bitxikeriekin.

Lehen erran dudanez, jende ugari, gehienak herrikoak eta adin guztietakoak. Aipatu behar da filma hauek pantaila haundian eskeiniak izan zirela, honek daraman abantailarekin.

Osteguneraco aukeratutako gaia, gaur egun gori-gorian dagoenetako bat genuen: "Vascuencearen legea". Honi buruz solasteko Sagrario Aleman, Iruñeako zinegotzia etorri zen. Berak egindako esposaketan "Vascuencearen legeak" Nafarroa osoan izanen duen eraginaz jardun zen.

Euskararen egoera latza zela eta zerbait egin beharrean gaudela egoera hortatik nola edo hala atera ahal izateko. Ez zen jende askorik bildu hitzaldi hontan, gehienak irakasleak zirelarik, aipatu ere herriko hauteskundeetara aurkezten ziren kandidatu bat edo beste ere agertu zirela.

Hurrengo eguneko ekitaldiak asteburu mogitu baten nolabaiteko sarrerra ziren, egun hontarako musika aukeratu bait zen "jaun" bezala. Arratsaldeko 8retan, eskolan, Dire Straits-en bideo bat eskeini zen, ez zen jende askorik inguratu, baina inguratutakoak, gazteak gehienak, hagitz gustora.

Gauerako, musika ere, baina estilo zeharo desberdin batez, JAZZ emanaldia bait zegoen Sebastiana taldearen eskutik. Bordatxon egin zen, saio luze eta mamitsu bat eskeini zigutena Sebastianakoek. Jende gutti bildu zen, aitzaki bezala musika mota hau talde minoritarioena dela emanez.

Larunbatean hiru ekitaldi hartzen zuten egun osoa: goizean, JUDO; arratsaldeko lehen ordutan TXIRRINDULARIAK eta geroxeago HAURRENTZAKO ANTZERKIA. Baina aipa ditzagun banaka:

-Judoko saioaren bidez inguruko herrietako eta Donostebeko haurrek eta helduek zenbait teknika eskeini ziguten, jende ugari zegoen saio honen inguruan.

- Arratsaldean txirrindulari gazteak Donostebeko kaleetako jaun eta jabe bihurtu ziren ordu batzuz (kotxezale bat edo besteren amorrazioz). Proba polita eta ikusgarria, eta kaleetan jendea txaloka txirrindulariak animatuz.

- Eta azken ekitaldia, herriko haur guztieei zuzendua, AZKONAko antzerkigile gazteek haurren aurpegiak irrifarrez betetzen jakin zuten. Gustora egon ziren begira eta gero gustorago dantzan eta saltoka, nahiz eta une batez euriak agerpena egin, segidun atertu eta jarraitu zuten. Txikiak behintzat primeran pasa zuten!!

Honela iristen gara igandera, egun nagusia aste kultural honetan, nahiz eta eguraldia askorik ez lagundu, honeri aurre eginez ekitaldi guztiak bere martxa jarraitu zuten. Eskulangintza izan zen egun hontako protagonista beste ekintzen artean, goizetik eguerdiraino udaletxe azpian gure herriko eskulangileak izan ziren bere lanak aurkezten eta inguratzen ziren guztiei erakusten, hara non ziren: talo egileak, zura lantzen zutenak, forja, haria,...

Bitartean, eliz parrokian Lesakako abesbatza genuen bere ahots ederrez zenbait kantu eskeiniz.

Eguerdian bazkari herrikoia, espero zen baino jende guttiago, kanpotarrak nagusi zirelarik, ZERGATIK?...

Arratsaldean euskal dantzen saio aparta eskeini zigutena Berako Gure Txokoa taldekoak txalo ugari jaso zituzten frontoian bildu ziren ikusleetatik.

Eta guztiari bukaera emateko antzerkia, Moliére idazle frantziarraren "El médico a palos" eskeini zen KILKARRAK taldearen eskutik. Obra polita eta nahiko irri egin erazi ziguna han bildu ginen jende guztiari.

Beraz, hauek izan dira III. ASTE KULTURALAREN ekitaldi nagusienak, hala ere, erran aste guztian zehar udaletxean erakusketa bat egon zela herriko zenbaitek eskeinitako pinturaz, zeramikaz, zuraz,... eta argazki lehiaketara aurkeztutako zenbait argazki ere. Erakusketa oso bisitatua izan da, herritar asko bertatik pasa delarik.

HAURREN ANTZERKI SAIOAN HONELAKO GIROA SORTU ZEN. Anka-luze honek, beste batzurekin, haurren poza eta alaitasuna piztu zituen.

Honez gain ere EZPELURA aldizkariaren ale berri bat atera zen, ez zen kolaborazio askorik egon herritarren artean, baina bildutako guztia hor dugu.

Amaitzeko esan III. aste hontan burutu diren ekintzak harrera nahiko ona jaso dutela, batez ere kanpotarrengandik, hala ere Donezteberrengandik jasotako "apatia" ere oso nabaria izan dela aste guztian zehar. ZERGATIK?...ZER GERTATZEN DA HERRIAN ANTOLATZEN DIREN EKINTZA KULTURALEKIN?...

Burututako ekintzen artean honako hauek ditugu nagusi:

- Asleleheherako X. ERRO mendigoizalea ekartzea pentsatu genuen, baina, oraindik ez dakigu zergatik ez zen agertu eskolera, ekintza bertan behera utzi behar izan genuelarik.

- Astearterako bi pelotari ospetsu ekarri genituen: MAIZ eta ERRANDONEA. Haurrekin hagitz gustora egon ziren hauek egiten zizkieten zenbait galderei erantzuna emanez.

Antton Maiz eta Ignaxio Errandonea haurrei erantzuten.

· DONEZTEBEKO ESKOLAN EUSKARAREN ASTEA

Aurten ere maiatza heldu bezain laster Donezteberko eskolak II. EUSKARAREN ASTEA ospatzea erabaki zuen. Horretarako zenbait ekintza burutu zituzten bertako zenbait irakasle eta ikasle, guraso elkartetik laguntza jaso genuen ere.

- Ortzegunean berriz bertsolariak etorri ziren bertso saio eder bar eskeintzera eta zenbait galderei erantzutera. Etorri ziren bertsolariak L. Aburuza (eskolan bertsolaritza ematen duena) eta Elizagoien, Arraioztarra.

- Ostiralean bertsolari gaztetxoak etorri ziren, hemengo haurrei bere bertsoak eskeintzera bapateko saio polit batetan.

Arratsaldean berriz antzerki saioa izan genuen eskolako haur guztientzat, Ibarrako haur talde bat izan zen antzeslana burutu zuena.

Guzti honez gain aste horretarako Ipuin lehiaketa bat antolatu zen eskolako haur guztien artean, maila desberdinetan banatuz.

Baita ere eskolako sarrerako pareta nolabait apaintzea pentsatu zen horretarako bertokoak ditugu bi motibo aukeratuz: joaldun bat eta laxo jokalari bat.

Guzti honekin akittu zen gure Euskararen II. aste hau, gure hizkuntzari nolabaiteko bultzadatxo bat eman nahiean antolatua, espero dugu zerbait lortu izan genuela.

Malda-Errekako OSASUN ZENTRUA

Hilabete batzuk pasatu dira ireki zenetik eta ordutik urgentzi gauzak hor egiten dira, baita odola-ateratzeak ere, hasiera batean ostiraletan bakarrik egiten baziren, orain asteartetan ere egiten dira.

Haurdun daudenei ere amatasunerako prestaketan laguntzen zaie. Hain zuzen ere, 7. hilabete aldera hasten dira Zentrura etortzen. Lehenago eta kasu gehienetan, herri bakoitzeko sanitarioek eraman dute heuren kontrola. Gero, haurdunek taldetan bildu eta erditzeko eta haurra hazitzeko ikastaroak hartzen dituzte.

Osasun mentala deritzen den zerbitzua ere martxan hasi da, hain zuzen ere Iruñako espezialistak bertara etorriz. Bestalde, Donoztebeko medikua eta erizaina hasi dira kontsulta pasatzen zentruan. Baita albaiteroa eta farmazilaria ere bere funtzioak betetzen.

Orain artean zentru honetako sanitarioak munizipalak ziren, hau da, bertako udal desberdinen artean izendatuak eta ordainduak, albintea eta idazkaria bezalaxe. Orain berriz, gehientsuenak Diputaziora transferituak izan dira; transferentzi honek zera erran nahi du: batetik, hemendik aintzinera Diputazio berak ordainduko diotela eta bestetik lanpostu berriak sortzen direnean trasladoen bidez beste lanpostu bat hartu dezaketela.

Hala ere, Udalak bere zer eginak izanen ditu osasun arloan. Errate baterako herria eta herritarren egoera higienikoaz arduratzea.

Dena den hemendik hilabete batzutara martxan paratu



beharko dena zera da: OSASUN KONTSEILUA. Kontseilu honetan zenbait ordezkarik parte har dezake, kontul parte hartu besterik ez. Eta gutxi gora behera hauek osatuko lukete kointseilua:

- Zona hontako 5 ordezkari.
- Administrazioko ordezkari bat.
- Osasun taldeko zuzendariak.
- Sindikatoetako 2 ordezkari.
- Enpresetako 2 ordezkari
- Eskolako kontseilutako ordezkari bat.
- Elkarte desberdinen artean 3 ordezkari.

Kontseilu honek beste funtzioren artean hauexek izanen ditu:

- Zonako osasun diagnostikoa ezagutu eta bertan parte hartu.
- Osasun-programen garapenean eta ebaluaketan parte hartu.
- Osasun-programa bereziaz informazioa zabaldu.
- Osasuna babesteko eta bizkortzeko ekintzetara herritarrei parte hartzea eragin.

Boletinean atera denak, hori dio, bederen horrela izan beharko lukeela... Baina "beharkotik" izatera... Ikusi egin behar. Dena dela Erreka honetan osasun egoera aldatu nahi badugu... lan egin behar eta hortarako prest dagoen jendearekin besterik ezin da kontatu.

ZUBIETA

Ez dakigu IVA, edo Europa, edo Merkatu-komuna-Arrunta, edo, edo, edo baina martxa horretan segi ezkero Zubieta, lege gabeko hiria zena, hiri hutsa bihurtuko. Saltsa, estankoa itxi dute, bat, jubilazioa dela edo ez dela arras paseanteak bihurtu etxe hartakoak.

Bigarrena, granja. Aurten "San Anton saca la mula de tentacion" entzuterakoan, Monterok joan eta "San Anton, txerria kita y paro pon" egin omen du. Orain denak ohiu eta negarrak dira.

Non erosi orain kaloria?

Nondik ekarri ongarria?

Nola herriari usai goxoa eman?

Errua frantsesak omen dute, edo holandesak, handik ekartzen dituztelako. Bai, han erosi eta honara ekarri. Hemen hazita hil baina merkeago ateratzen omen dira. Hau dena europear adelantuak omen dira baina guri txerriak kendu. Diskotekaren bat ez badugu jartzen? Diskoteka San Anton, nobias y senarras en monton. San Anton Bedeinkatu eta Mendaur aldera,amontegira. Uy, uy, uy ama!

"A montaña" joan zaigu ere sekretario jauna, oposizioekin eta guzti, bihurturik. Han sekretari postu bakante bat atera zen eta lehen hemen zegoenak hangoa lortu du, honara ulzamar bat ekartzeko, probisionala. Mugimendu faltarik ez, bederen. Hori bai! mugimendu bila bazabiltza jubilatuen "Arkupe elkartera" apuntatu zaitez eta leitu, momentuz gure korresponsalak bidalitako agiria:

"Gaztaroan denok ausartak gara, gehienak bizi gara hutsetik ihes eginez. Batzuk ausarki bizi modu gogorra, hainbestean biziz, lanpetasuna gainditurik, besteak izakera abenturalari uko egin gabe; eta hainbestek bizi erosoa emanez. Bakoitzak bere neurrian bidea lantzen.

Zahartzaroa ustekabean etortzen da, nahiz eta gure begi aurrean zaharrak itxura zoriontsu eta osotasun argiarekin azaldu, badakigu iluntzeari aurre egitea zaila dela, nahi eta ezin batean sarturik; barne egoera, etorkizuna, urduritasuna eta abar, beraz unkigarria da. Bersortzea beharrezkoa da, bizikera moldatuz noski.

Txalogarria da zonan antolatu den "Arkupe elkartea" inguruko herriekin batera, atera bide atsegin bat, eta nola ez bada, kriston mobidan bilakatu, ikastaro trinkoen antzeko, han hemenka dabiltzate, bideak, herriak, dantzaldiak eta batez ere solas, solas eta solas eta denok oso pozik. Luzerako arrakasta desiratzen diegu."

Zeramakien martxan segi ezkero jubilazioa ailegatzen ez zena LazaroPeriko dugu, orain arruntin formala ikusten duzuten hori, Zubietako isiltasuna azkenean gordetzen duena. NNNNIIII? Boza galduko ote zuen? Boza ez dakit baina burua bai kasik. Ostatuko eskaileratatik ez zen ba bota hegaka hasi nahiean? Metro pare bat eta urgentzietara, Iruñeara lo zurrunka bizian!

Hurrengo aste bukaeran Martintxo, goiko ostatukoa. Munduan aritua bera, entzuna omen zuen frantzes produktoei boikota egin behar zela eta hain zuzena denez lagun baten Renault-4 bat zuzen zuzenean mendiaren kontra bota. Eskerrak azken momentuan bera barrenean zela konturatu eta aldamenakin jo zuela. Ez pentsa hemen bukatu



dela dena.

Hurrengo astean, larunbata hain zuzen, Errandonea ostatuko Mikeli aurreko biak gainditzeko manera burutu, aizu! Hartu bastante polita zuen 4 L propioa (Renault-a, noski) eta Lozabian inguruko kurba batean "Viva Rusia y Komunismo" oihukatzen zuela: Lazarok bi metro, Mikelek hogeita hamar, biak goitik beherakoak; Martintxok 300.000 pezeta inguruko konponketa, Mikelek txatarrerira.

Udal berriak asmoa omen du, Maragalleri idatziz, Bart-zelo-ona-rako Olinpiadetan sartze proposamena egiteko, Zubietarrak txapelduni Stiwe Wonderrek emango omen ditu txapelak. Entrenatzeko pista martxan dugu ia, Aurkidiko pista berria...

Orain dela gutxi, larunbata goiz batean, kotxe pilla bat baziren plazan, denak oso dotoreak. Automobil horien jabeak arropa sotilak zituzten. Helduak ziren eta heuren aurpegiak, betaurreko pare batekin sudur gainean, hasarreren aurpegia zuten eta oso serioak zeuden.

Udalak subastara atera zuen ea nork merkeago egiten zuen pista. Iziarretik Aurkidiko bordara Malkorratik eta Atxongo bordatik pasatuta.

Jende asko bildu zen. Denak kanpotarrak ziren. Heuren artean burruka asko izan zituzten. Merkeena eskeini zuena Erriberako jaun bat izan zen.

Eskeini zituen unas... 1200 pezeta, maaaas. Bai, zihur nago hori baino gehiago eskeini zuela. Muuxo, muxo, muxo, muxo mas.

Esan digute, eta guk siinistu, Isasi Jaunak -Iturengo alkate berriak- Mendaurko pista asfaltatzeko asmoa omen duela, eta enbaltse gainetik plastikozko kupula bat eraikitzeko ere, aurtengoa gerta ez dedin, zeren, Trinitate Eguna ailegatzen zaigu eta denok oso pozik berriro natur inguruan sentitzean. Lagun artean joateko asmotan, bazkaria, edaria baita ordua ere erabakita eta eguraldiak izurratzen gaitu, egun euritsu eta hotza, halare jende franko oinez eta kotxez igo zen. Beti bezala oso giro polita izan zen. Mendaur tontorreko baselizan meza entzun eta ondoren batzuk etxerantz alde egin zuten, besteek bertan bazkaldu edo eta bokadiloa jan eta laster, hozten hasi baino lehen herrialdera. Aurreko urtetan bezala aurpegia gorri hantzea ikusi nahi genduen, baina ez zen posible izan hurrengoan beharko.

Bitartean, festa.

Ze isiltasuna, Zubietan dagoena. Ez da gazterikan kaleetan eta plaza maiz hutsa dago. Baita tabernak ere. Orain ez dute negoziorik eginen.

Ba bai, bai. Hilabete bat bada falta direla. Sekuestratu egin izanen dituzte. Ai, ai, ai. Poliziari deitu behar izanen dugu, Zubietan zehar bilatzeko. Edo bestela, bandoa jo ea norbaitek ikusi dituen eta hala bada, indemnizazioa emanen diogu.

Izan daiteke taberna batean egotea tragotxo bat hartzen.

-Pakito zuk ikusi al dituzu? Bai al dakizu non dauden?

- Motel, txoratu egin al haiz? Ez al haiz oroitzen mendian ditukela? Hori burua! Urtero bezala, lana egitera joaten dituk eta Eguberrietan etorriko dituk atseden hartzera. Baina aurten beste mutil bat sartu duk basatien taldean, eta ....txatxan txatxaaaan, Ezekiel Baleztena Jauna dugu beraxe!

Ieeepa Ezekiel. Zer moduz habil? Hemendik bidaltzen dizkit gorantziak eta besarkada handi bat. Mua.

Ba dira, eta ugariak, misterioak mundu honetan, hau inkisizioa etorri zaigunai Beitu, zu Errenterira zoaz eta behin baino gehiagotan tokatu zait kale guztiak, edozein ordu dela, jendairaz betiak ikustea. Enpresa txar bat huelgan (edo greban, modernuak esaten duten bezala) dagolikan, BENO! BENO! uda ondarrean iratze sorotan ibiltzea antzekoa. Hemen berriz, Zubietan?! Kalian? To! Denak landan, pistetan, bordetan, lan ta lan! Hori ahal da huelga egiteko manera?

Dena dela, bukatu da, lan ofizialetan dira fabrikante guztiak, belar batzu etxeratuak, metatuak beste batzuk eta egin bidean besteak, Nola izango da herri txiki hauetako giroa eze, modernuak, heurek, heuren modernitateaz aste bukaeratan bakarrik oroitzen direlako eta haratxe honatxe oihukatzen dute: SEXO,ALKOHOLA eta ROKANRROLA! Alkohola nahi duten guztia: Zubietan bertan, 300 biztanle, 5 ostatu/ Sexoa, hor konponi erogaupropuestak ez dira falta, Ibarnan... dirurik ez, Endarlazan gogua behar.../ Rokanrrola... GOROSPILA SUTAN izeneko rok-gogorra egiteko asmotan badabiltza; bateri lehertzailea Kurro, psssitbokalista Mikel, teklado maingua Iñaki eta bajo pero estretxo Martintxo,... manager, tartamudoa, enpin, enpin, momentu hauegatik ez balitz.

Baina ez pentsa hemen esaten dugun guztia katxondeo hutsa denik, ez, ez. Batek baino gehiago bere haragietan probatu du... Kunetena, to!. Esan eta esan ari ginen eta halako batean, zas! Sareko borda pasa ondoren Mendi Txuriko kamioneta batek, bizpahiru hilabete izanen dira, sartu eta ezin ateri. Grua eta guzti ekarri behar izan zuten! Eta hau ez da deus, handirik behinipein.

Makurragoa da Arantzan gertatutakoa. Nola esaten genuen Chernobylgo usorik ez jateko.? Hangoak txorrada balitz bezala hartu zuten eta espioiak zirela, goi politikarekin jolastuz, ondorioak hemen:

EUSKARA LINGUA NAVARRORUN EDO TXAKURREN BIBOLINA

Nola egin dezaket, trokolotarrekin mindu gabe esan behar dudana esan? Ez dakit baina seguraski dagoeneko, eta kasualitatez hau irakurriko balute, ados ditut. Iaz saiatu ziren lau hitz euskaraz esaten, ez Nafarroako Gobernuak bezala, vascuence-ren legea egin duen gobernuak: propaganda guztia gaztelaniaz, tomaya! pelikulak eta komikoak gaztelaniaz, beste bat!

Euskarazko irrati-telebistarik gabe edo malamaneran lortutakoak, hirugarrena!

Eta gaztelaniaz aritzeko ohiturarik ez baduzu, ez eritu, zeren zerrindentziara joan behar baduzu, hizkuntz aldetik ez duzu laguntzarik jasoko.

Hurrengoa ere "Presidente de todos los navarros" izanen dugu.

Dena dela Trokolotarren ideia ez da idei txarra, kaleo paratu, musika, teatroa eta bukatzeko pelikula bat. Ongi pasatu dugu! ¡hemos pasado bien!

JULIO
DIA

2. Espinal
3. Uztárroz
4. Abaurrea Alta
5. Garde
6. Navascués
7. Yesa

9. Rada
10. Beire
11. Orisoain
12. Mañeru
13. Echauri
14. Bearin

16. Arellano
17. Etayo
18. Ancín
19. Acedo
20. Eulate
21. Iturmendi

23. Lizarraga
24. Huici
25. Oscoz
26. Labayen
27. Zubieta
28. Lecároz
29. Arre
30. Olagüe

ZUGARRAMURDI

Azken hilabete hauetan atrankil ibilki gara, ez dakit denbora edertzeak animoak lasaitu izanen dituen edo zer, baina orain herriko berriak kontatzera noaielarik ohartzen naiz ez dela deus berri on edo txar kontatzea merezi duenik.

Behar bada komentatzen ahal genuen LEZEKO GAU-PASAren gain. Besta hau aurten bostgarren urtea da egiten duguna eta gero eta hobekiago doa. Lehenbizian lan ikaragarriak ibili genituen (pentsa ezazue leze batean egiten dela eta den denetaz pentsatu behar dela); lehenbizian ere diru aldetik frakaso haundia izan zen. Orain pittaka-pittaka ikasten ari gara, gastuak mozten ari gara eta konten gara gure besta honek fama hartu duelakoz eta irudi duelakoz jendeari gustatzen zaiola.

Gau-pasak alde guztietan egiten dira baina uste dugu dantzaldi bat fronton edo plaza batean ez dela leze haundi eta ilun batean bezala, errekaren ondoan, argiak arbolen artean zintzilika ikusiz, gaueko momentu batean argiak itzaltzen direlarik eta sorginak alde guztietatik agertzen direlarik, eta gero Itturengo zanpanzarrak suziriak eskutan iluntasuna hausten bere joarien pulunpekin... gauza polita da.

Besta hau prestatzea lan haundia da, baina merezi du lana hartzea.

Esan behar dugu ere, Zugarramurdin ez ditugula SAN FERMINak ospatzen baina hala ere sentitu dira efektoak. Batzuk izan gara, besta pixko bat egin dugu eta gero zintzo-zintzoak etxera bailarik egin gabe bueltatzen ginen. Baina izan dira beste batzuk ageri zutenak ez direla preziski belarretatik heldu.

Agertu ziren igande arratsean pertsonaje zenbaitzuk Altzateneko ostatura. Batzuk Iñaki ete Pakitto bezala formal formalak pote bat hartu eta erretiratu ziren. Mitxel Dolarekoak ere erretiratzeko asmoa bazuen baina, ez zuen posible izan etxera ailegatzea eta Altzateneko baratzean danpa lo gelditu zen. Esteban Galtzagorritegikoak berriz oraindik juerga egiteko gogoa gelditzen zitzaiola erakutsi zuen, eta hantxe Mirentxuren triziklo txarrean errestauranteko komedorean barna mahai artean xarrustean bueltaka ibili zen han afaltzen ari ziren jendeari batere kasurik egin gabe.

Baina espektakuloa montatu omen zen ostatu berean, Gamio hasi zelarik ez dakit eta badakit zer bere gizon-atributo-borobilen gain. Pentsatzen ahal duzue afera ez zela hitzetan gelditu, eta zirika eta zirika, azkenean Iñaki Sansin deliberatu zen:

- "Hara nereak!!, erakutsak orain hireak, ia zer ote duten ba, holako espezialak."

Eta orduan Gamiok irriari emanez:

- "Horiek ez dituk deus mutikoa, hauen aldean."

Eta denek harrituak konprobatu zuten Gamioren espantuak egiak zirela: ikustekoak omen ziren bere gizon-atributo-borobilak.



GOIZUETA

San Juan gaueko suaren gainetik salto egin eta... uda. Eta udan ere, TTIPI-TTAPAn, kontatzeko gauza batzuk baditugu Goizuetan

A.E.K.

A.E.K.k Goizuetan barne ikastaro bat antolatu du udako. Barru ikastaro hauek herri euskaldunetan erregimen interno batetan antolatzen dira, egunean sei eskola ordu emanez. Ikastaro hauen helburua ikaslea 2, 3 edo 4 astez giro euskaldun batean mintzamena hobetzea litzateke; euskaraz bizitzea.

A.E.K.koek uste dute Goizuetako herriak Barru Ikastaro hauek antolatzeko baldintza guztiak betetzen dituela.

Goizuetarrok ere ikasi beharko dugu euskara ikasten ari direnei gauzak errazten, behar izango balitz poliki-poliki hitzeginez, eta, ahal den neurrian, laguntzen geure hizkuntza ikastera etorri direnei. Ongi etorri.

ASMOAK BETE

Asmoak eta asmoak omen dira baina asmoak ere betetzen dira. Esango ditut batzuk:

- Goizuetako talde batek Oriora oinez joateko gogoak ditu. Donostiara autobusez joan eta gero handik, Igeldo eta Mendizorrotzetik barna, Oriora jaitsi.
- Beste batzuk, Goizuetatik Orreagara hiru eguneko ibilaldia egitekotan daude. Lehenbiziko egunean Goizuetatik Donamariara, bigarrengoan, hemendik Saioa mendiaren ingurura sartu, eta, hirugarrenean, Orreagara.

-Azkeneko talde batek, hauek dira ezin egon haundiena dutenak Parisera joan behar omen dute autobus litera horietako bat alokatuz. Aste bukaera bateko zubi luzea aurkitu ezkeroz haraxe joango zaizkigu. Hau da hau, jende internazionala!



Goizueta.

ELKARTASUNA

Oraingo hau ez da kontu berria baina berritzea komeni da. Goizuetan badaukagu Elkartasuna izeneko soziedade bat. Jende askok ez daki nondik nora eta zertarako sortu zen. Hona hemen oinarrizko informazio bat.

- 1.901.ean Goizuetako Herriko

Goizuetako Udaletxea.

Etxeak D. Matias Arteagari Azkote mendia erosi zion. Mendi hau Urraideko inguru hartan dago. 18.000 pzta. ordaindu zizkion.

- Diputazioari % 10eko zerga ez ordaintzeagatik Herriko Etxeak mendi horren jabetza herritarren izenean jarri zuen. Honela sortu zen Elkartasuna.

- Azkote mendiak hasiera batean 289 hektarea zituen. Añarbeko urtegia egiterakoan 101 saldu behar izan ziren eta orain 180 hektarea gelditzen dira.

- Elkartasunaren bazkideak 18 urtetik gottiko Goizuetar guztiak dira.

- Elkartasuna eta Herriko Etxearen kontuak aparte eramaten dira. Bi erakunde hauek herriari serbitzen diote, eta Elkartasunak Herriko Etxeari hestualdietan laguntzen dio.

- Elkartasunaren kontuak urtero eman behar izaten dira.

-Goizuetako eliz-parrokia 1959.ean inauguratutako zentroa (zinea), "Iriartenea" izeneko etxean, zorretan jarri zen urte batzuren burura eta Elkartasunak, 1971.ean, bere gain hartu zituen zor hauek zentroaren jabetzaren truke.

- Azkeneko lau urte hauetan teilatua konpondu zaio Elkartasunaren zentro honi. Hala ere, bigarren urrats bat falta da: Goizuetako herri guztiari komeni zaio zentroaren bizia piztea, Elkartasunaren zentroa herritarren arteko elkartasuna sortzeko lekua izan dadin.

Goizueta.

HAUTESKUNDEAK

Ekainaren 30.ean ospatutako Herriko Etxeko sesioan alkate berria izendatu zen. Herriko hauteskundeetan Herri Batasunak lau zinegotzi lortu zituen eta aurkeztutako talde berriak, Anizlarreak, bost. Gauzak honela egonik, Juan Ramon Iribarren Perurena. Anizlarrearen zerrendako lehenbizikoa izendatu zuten alkate bere alderdiko boto guztiei esker.



Goizuetako Udal berria.

BAZTANDARREN BILTZARRA



Baztango Udaletxearen maketa agertzen zuen Elizondoko karrozak irabazi zuen lehenengo saria.

Gaubela.



Xorroxin Irratiaren karroza.

Argazkiak: ZALDUA



Gestoraren karroza, preso eta errefuxiatuen omenez.

Gazta egiten.

Oronoz - Mugaireko karroza.

1.939 Gerla denborak.

ERRETZAILE NEOFITO BATERI GALDERAK

Zer erantzun emanen zenidake nik orain galdetuko banizu "zergatik hasi zara erretzen?"

Pentsa ezazu, bakarrik galdetzen dizut zergatik "hasi zaren", ez zergatik - "erretzen duzun".

Behar bada zure erantzuna ez duzula erretzen izanen zen, noizbehinka zigarro bat hartzen duzula ezpain artean, baina ez dela gauza serioa.

Eta berriro dizut: zergatik hartzen duzu noizbehinka zigarro bat ezpain artean?

Segur nago zuri, beste guzitei bezala, zigarroaren lehenbiziko eta bigarren eta hirugarren... kea irentsi zenuelarik ez zitzaizula batere gustatu, eta seguru eztul batzu bota zenituela.



Eta orduan esan iezaidazu: "zergatik jarraitu zenuen saiatzen?; zergatik irentsi eta irentsi, eztula bota eta eztula bota, eta zergatik arriskatu zinen bertzen aintzinean lotsa pasatzea, ezin jakinez nola piztu zigarroa, nola itxeki behatz tartean, nola eraman ahora...



Jakin nahi nuke zer arrazoiak izaten ahal dituen pertsona batek hori egiteko. Zer espero ote duen zigarro batetik eztul eta lotsa horien ondotik. Erretzen ikasteak izanen ote du konpensazio dexente bat?

Orain esanen didazu ez paratzeko hain "tragikoa"; ez dela hainbestetarako; zigarro bat gora-behera noizbehinka erretzeak ez duela halako arriskurik. Baina ni ez nintzen hain segur izanen.

Ez da hala zuk ez duzula behin ere pentsatu osasun aldetik problemak izaten ahal dituzula? Zuk seguro ez duzula zure bizitza guztian pakete osoa erreko egunean; eta hatsa hartzeko problemarik ez duzu behin ere izanen; eta korrika luzeak egiten dituzu zure birikak eta zintzurra sumatu gabe ere; zu ez zara inoiz halako extremoetara ailegatuko; zuk erreko dituzu zigarroak baina ez zaizu behin ere holakorik pasatuko...- zuri ez. Hori bakarrik besteei gertatzen zaie.

Egitan, uste dut pixka-pixka bat pentsatzen baldin baduzu ohartuko zarela, zigarroa erretzen ikastea (eta esaten dut "erretzen ikastea", zeren erretzailearena beste problema gogorragoa da) hori ba, esaten nuen nere ustez erretzen ikastea haurkeri bat dela: haurrek egitan duten jostaketa engainoso bat.

Pentsa ezazu pixko bat. Ez zaitez haurra izan. Hori ez da gizonen gauza.

ZUGARRAMURDITIK

ARKUPE

Adintuen elkartea

Malda-Errekako adintuak gazteagotzen ari direla erran dezakegu. Harat honata, besta giroan egoteak eta lagun artean elkartzeak bizi-poxa ematem bait diete. Eta heurek pozik egotean herria ere konten sentitzen dela ezin ukatu.

Batez ere, eskursionea den egunean, taldeka ikustea herriko plazan edo karretera bazterretan ez da harritzekoa. Herri ttiki hauetako martxa, egunerokoa, aldatzen baidute. Egoera honen sortzailea ARKUPE ELKARTEA denez gero komisioko lagun batekin solastu gara jakiteko ea nondik nora dabiltzan, zer egoeratan,eta beste hainbat gauza.

TTIPI-TTAPA.- Nola sortu da Arkupe taldea?

ARKUPE.- Joan den urtean hasi zen dena. Ekainaren 30ean Doneztebeko jubilatuak egin zuten besta batetik. Orduan, bi lagunei omenaldi bat egin zitzaien eta 160 lagun bildu. Geroxeago Iruiñera bidai bat antolatu zen eta jendeak ere parte hartu zuen. Jendeak horrela biltzean eta ilusioz zerbait egitean ba, pentsatu genuen merezi zuela inguru honetan jubilatu eta adintuentzat elkarte bat egitea, batez ere jakinik beste leku anitzetan horrela funtzionatzen zutela eta hemen, inguru hauetan inongo expe-


200K

rientziarik ez izatean ba animatu ginen.

TTIPI-TTAPA.- Eta zein asmo dituzue?

ARKUPE.- Beno, hasteko "Zaharretxea" geureganatu nahi genduke. Beheko aldea, jubilatuen lekua izateko, egon gela, kafetegia... izan, hor jendea bildu, egon edo nahi badute eskulanak eta abar egiten aritzeko.

Lehen pisuan, egunerako zentrua izatea gustatuko litzaiguke. Badira adintu anitz etorriko liratekeenak egun pasa edo bazkaltzea esate baterako, gero gauez bere etxeetara erretiratzeko. Batez ere, heuren familiakoak kanpoko lanetan ari baldin badira.

Bigarren eta hirugarren pisuan ohatzeak edukitzea da gure asmoa. Ohatze horiek honelako funtzioak beteko lituzkete: eriak bertan zainduak izatea, familiarik ez duenak bertara biltzea edo larri aldi batean horko ohatzekin kontatzea.

TTIPI-TTAPA.- Arkupeak zer lortu nahi du?

ARKUPE. Adintuen bizitza alaitu eta ongi pasatzeko medioak paratu. Eta nolabait ere bizitza honetan heurek izan dezatela dagokien protagonismoa.

TTIPI-TTAPA.- Gaur artean zer egin duzue? Eta zein nolako balorazioa egin?

ARKUPE.- Zenbait ekintza egin ditugu eta egia erran jende arrunt konten dago.

Hasieran, Donezteben omenaldi bat egin genuen eta Iruiñera ere bidai bat. Geroago Donostian parte hartu genuen, jubilatuen eskulanetaz zegoen erakusketa batean, hiru sari eta lau domina irabazi genituen. Anoetako Belodromoan ere izan ginen. Geroxeago hasi ginen elkarte bezala funtzionatzen eta bazkideak lortzen gaur egun 670 lagun bildu dira Arkuperen barnean.

Arkupe izena berriz, Donezteberko Udaletxe zaharretik dator, han dagoen arkupetan leku bat lortuko genuelakoan izen hori eman genion; geroztik ez dugu aldatu hain zuzen ere estatukoak ere aldatu beharko genituelako.



Ordutik ekintza zabalagoak egiten ari gara jende gehiagok parte hartuz; adibidez, Apirilean 2 lagunei omenaldi bat antolatu genien baita zenbait bidai egin: Lizarrara bat, Getari eta Zarautzera bestea eta azkena 3 egunerako irteera Andorraraino joanaz. Uda aldera berriz, herrietako bestetan egun bat antolatu dugu adintuen izenean. Jadanik, Saldisen eta Donezteben egin dira egun horiek eta jendeak ongi pasatu du.

TTIPI-TTAPA.- Adintuek aise hartzen al dute parte?

ARKUPE.- Ideak ateraz eta oso argiz azalduz gero parte hartzen dute. Baina gehienetan jende bera izaten da. Erran beharra dago, herrietako delegatuak arront ongi funtzionatzen ari direla.

TTIPI-TTAPA.- Pertsona helduak gauza berriak ikasteko, ohituraz aldatzeko, komunikatzeko prest ikusten al dituzu?

ARKUPE.- Jendea hemen arront itsia da, konfiantza eman behar zaio, gauzak argi erakutsi eta ongi doaztela ikustekin orduan fiatzen dira. Hala ere jendea gehiago komunikatzen hasi da, konfiantza hartzen ere bai eta egunetik egunera lagun gehiagok eskatzen dute irteerak eta antolatzea.

TTIPI-.TTAPA.- Talde honetakoa izateko zein baldintza bete behar dira?

ARKUPE.- Beno ba, 58 urtetik gorakoa, jubilatua edo alarguna izatea. Ezkonduen artean batek baldintza horietako bat betez gero, besteak ere parte har dezake. Baita ezkongabeak ere, parejan bizi den jendeen artean, gauza bera gertatzen da. Urteko kuota ere ordaindu behar da mila pzta. izaten da eta orain bostehun itzuli diegu bestetan eta parte hartzen duten guztiei.

85 urtetik gorakoak eta behartuak daudenak ez dute deus ordaindu behar eta eskubide berdinak dituzte.

TTIPI-TTAPA.- Gobernuak, udalak, instituzioak.... zein laguntza ematen dizue?

ARKUPE.- Nafarroako gobernuak prometatu du baino oraindik ez du deus eman. "Principe de Viana"k 200.000 pzta.ko laguntza eman digu.
INSERSOkin orain ari gara. Eskaera zuzendu diegu baina ez dugu ezer gureganatu.
Udalak berriz, hauek dira diru laguntza eman digutenak: Doneztebe, Elgorri, Ittuna, Zubieta, Erasun, Saldias, Labaien, Urrotz, Oiz, Narbarte, Sunbilla Oieregi. Legasak esate baterako egurra paratu zuen. Donamari eta Gazteluko Udala berriz pendiente dago emateko. Ezkurrakoak berriz taldean sartuko direlakoan gaude.

TTIPI-TTAPA.- Komisio honetan zergatik ari zarete lanean?

ARKUPE.- Zerbait ona egiten garela uste dugulako.

TTIPI-TTAPA.- Nola ikusten duzu Malda-Errekan adintuen egoera?

ARKUPE.- Egoera larriak ikusten dira. Horregatik behar beharrezkoa da Aiutari Soziala, eta hori udal, sanitario eta Arkupekoen artean lortu behar dugun gauza da.

Bestaldetik, instituzioek eta alderdi hau oso baztertua dute, abandonatuak sentitzen gara, Iruñeatik herri hauek arront urruti gelditzen dira nonbait.

Familietan ere arazoak daude, adintuek heuren betiko lekua galtzen joaten dira eta sufrimentua dago. Gainera, hemen haur gutti jaiotzen da eta herrietan egunetik egunera adintu gehiago biltzen. Beraz zerbitzu egokiak beharko ditugu.

TTIPI-TTAPA.- Eta bukatzeko zerbait gehiago erran nahi duzu?

ARKUPE.- Kontet gaudela adintuen portaerarekin eta ea denon artean gauzak hobeagotzen joaten garen. Ongi eginak ongi har ditzatela eta nahi gabean zerbait gaizki egin badugu barka gaitzatela.

A.Z.

OPOSIZIOAK

Egun hauetan badirudi oposizioak direla lanpostu finkoa ateratzeko bidea eta jende asko aritzen da edozein oposiziotarako prestatzen. Baina zein puntutaraino balio duen prestatzen aritzea galdetzen dut.

Opositatzen aritu den batek badaki ederki aski, nola izaten diren eta nor izaten diren plaza horiek ateratzen duten jendeak.

Lehenbizian ilusioz eta esperantzaz beterik joaten dira baina pixkan pixkan ohartzen dira dena montaje bat dela. Beti entzun izan da oposizioak "entxufez" eta "atautxiekin" ateratzen zirela, baina orain arte ez nuen nere begiez ikusi. Lehenengo azterketan jendea besterik ez da ikusten, inor ez ezagunik, gehienez noizbait ikusitako mutil bat, eta pentsatzen duzu:

-Hauen denen artean nola aterako dut nik plaza? Hainbeste izanen dira nik baino gehiago dakitenak! ez da posible. Baina lehenbiziko azterketa atera duzu eta jendearen erdia bota atzera eta gero ohartzen zara plaza ateratzea ez dela hain zaila. Esperantza gehiagorekin hasten zara hurrengo azterketarako prestatzen, eta baita atera ere. Milatik hirurogei bakarrik gelditzen gara 16 plaza betetzeko eta hor entzuten da:

-"Bai, orain arte ongi atera ditugu denak baina zertarako, azkenean betikoak sartzeko?

Hilabete pare batzuk joan dira eta sakelak ere nahiko hutsak daude joan etorriaz eta liburuak erosiz. Diputazioko aho batek esan digu badirela elementu batzuk azterketa atera gabe aurrera jarraitzen dutenak. -"Gu hemen egin ahalak egiten aurrera ateratzeko eta besteak hortxe saiatu gabe aurreko puntan "entxufe" bategatik. Esperantza guztiak galdu ditugu baina azkeneko azterketa gelditzen zaigu eta eginen dugu... Baina

ez dugu plazarik atera... lanpostua galdu dugu. Dena pasatu ondoren pentsatzen hasten zara: 6 hilabete pasatu ditugu estudiatzen 5 azterketa mixerablerentzat eta gainera plazak aurretik beteta zeudenak. Dena alperrik izan da. Hau denbora galtzea eta dirua alperrik botatzea. Ergelarena egin dugu denbora guzti hontan.

Denak ez dut esaten, baina erdia baino gehiago seguru entxufez sartuak izan direla, eskerrago lukete "kalanbre" batez erreko balira eta okerrena da Diputazioari aurpegia eta eskuak garbiak ikusten zaizkiola. Honen kontra zer egin? deus ere ez, beti horrela izanen da.

I.O.N.

BI ANAI KISUGINTZAN

Animoak, edo goguak, barruko zera bat behar da gaur egun, XXgarren mendeko ondarrean, 1987an, lehengo modura kisua egiteko. Ez da izan, ez artesaniako feri bat, ez Diputazioak antolatutako turismokeri bat, ez, ez. Askoz ere errazago izan da, kontatzeko zailagoa, horregatik.

Patxiku ez dugu gizon oso altua, ezta argala ere; metro eta larogeietara ailegatzen ez da eta aurreko erdialdean zoriona adierazten omen duen sabel borobildua du. Eritasun bat bakarrik ezagutzen zaio, arikeria, beti zerbaitetan ari behar eta pentsatzeko astia duelikan aritzeren bat, ez ariketa, ideiatzen joanen zaio. Horrek, noski, eta gure munduan derrigorrezkoa denez, zorionak eta zoritxarrak ekartzen dizkio, baina gaurko kontua bere bizitza ez dugu, ekintza konkretu bat bakarrik baizik.

Dena dela bera burdi gidaria badugu, edo autobusen txoferra, bi aldiz anaia duen Migel -saltsa guztien perrexila eta baba dugu, perrexila ematen dion bizitasunagatik; baba indartsua izan da beti, lanerako hoberena. Eta bi aldiz anaia odolakoa eta gogokoa duelako, suerte ona duen Patxiku horrek.

Burutazioren baten ondorioa edo daramatzaten berriketa kontinuoarena izan da kisu egite hau. Izugarri ona omen da lur-momorroak akatzeko, ongarri gisa, ... eta gazteei erakusteko, nola egiten den eta jubilatu modernuak edozer gauzatarako onak direla ere...

Lehendabiziko pausoa kisulbia konpontzea izan zen, Patxikuk eta bere aitak egindako kisulbia, jadanik hirurogei urte direlarik. Urratua zegoen, zaborrez betea eta hor izan ziren istiluak. Kon-

pontzeko zenbat denbora behar izan duten galderari ez diote erantzuten, orduak ez dituztelako zenbatu, seguraski.

- Bien artean konpondu dugu - dio Patxikuk- hemen bertan zegoen harriarekin eta balango bat irikitzeko kendutako paretako harriekin eta ingurutik ekarritakoekin kisua egiteko harria izan dugu.

Zeren Zubietako alderdi hau kisu-harriz betea dago, harri grisa, masa kolorezkoa, zain txikiez beterik den harria. Ekaitza alderdiak harri gorria badu nagusi, beste alderdi honetan berriz, Labaina aldea, kare harria da gehiena.

Lehen zena bezalakoa egin omen dute, bi metro terdiko altura gutxi gora behera, eta metro terdiko diametroa. Goiko terraza lehengoa baina zabalagoa egin dutela diote eta egiteko sistema bera. Harriz bi pareta egin eta egiten ari direla, lurrez bete tarteak, pareten artekoak, eta harriak uzten dituzten zuloak -ez haizatzeko- dela esaten dute.

Kisulbiak, aurrez aurre aho borobil bat du, abobedatua, eta tximini kuadratu bat behetik gora dihoa, kisulbi osoa zulatuz.

-Barrenin ere ibili gara- dio Migelek ekia guregana datorren momentu bateanen-"rebestimiento" egiten- eta parra ateratzen zaio, pasatutako estutasunetaz oroituz.

-Zaborrakin estutua zen eta ederki kostatzen atetzea- borobiltzen du Patxikuk.

Azaldu beharko dugu orain inguru honetan bi kisulbi mota ezagutzen direla, handiak eta zaharrak batzuek, txikiagoak eta Gipuzkuatik ekarriak besteak, anaia bien hizkuntzan. Gauza guztiak bere arrazoiak izaten dutela eta kisulbi hauek Gipuzkoarrak deitzea Etxekeneko Martinen aitak, Beasaingoa bera, handik ekarritako eredua direlako dio.

Kisulbi hauek goitik betetzen dira, egurra eta harria tartekatuz. Beheran tranpada bat jartzen da -lehen egurrakin egina, burni batzuekin gaur- eta sua ematen zaio behetik. Egurrezko lehen kapak sua hartzen duelarik berotasuna gora dihoa, labe osoa berotzen, eta erretzen den neurrian behera heldu da dena, kisua, ahotik ateratzen dela. Ateratzeko hoztua egon behar du, eta hasieran harri puska batzuk ondo erretzekoak ateratzen badira ere, gero eta hobekiago egosten dira harri puskak, zeren kisulbi hauetan harri txikitua sartzen da. Jeisten den bezala goitik betetzen jarraitzen da, egurra eta harria kapaka. Egur asko behar da eta ona -gaztain zaharra erabili dute kasu honetan, bost traktore, hiru eguneko kisualdientzat-. Kisu harri errea ateratzen da behetik, ez errautsa, ez ikatza -gure argazkilariari atentzioa deitzen zion prozesu honek.

Beste kisulbiak, zaharrak, kisu harriez betetzen dira -bobeda bat eginezesaten zigun Errekaldeko Martinek. Harri handiez betetzen dira eta behetik...





-Handiak izaten zuten azpian arku bat bezala, labe bat, ogia erretzekoa, eta gero harri handiekin goiko parte guztia kargatzen zuten. Behetik sua eman, egur mehea, arba eta otea, zakarra... Beti ari behar, gauez eta egunez, kontinuo, pion asko behar zirela... hori bai, egurra errezagoa. Hauetan bai, errautsa atera behar zen eta hortarako kanal gisako bat izaten zuten.

-Kisulbi asko ziren?-Galdetu genien.

- Holakoak? Hasten banaiz kontatzen -zion Patxikuk- denak eztakik, hemen -bat... handik hasi -Amezti aldera seinalatuz- Errekaldeko bordatik, gero Sagardiko hor, Akernan; Leharreko bordan hiru; gero han ezta gehiago izanen; hau, lau; Ferminena bost; Serokoa sei; Etxekenekoa zazpi; Elaman ez zuten holakorik -Elaman handia- Tartekatzen du Migelek -eta Gartziak han- bestaldera seinalatuz, Gorozpilaldera seinalatuz-, zortzi; Sarekoa, bederatzi; Goientxen bordan hamar; gero han Mendrasan, Parazelaitan bordan hamaika...

- Eta beti etxe batekoak erabiltzen zituzten bakarrik?-

Ez, etxe ezberdinekoak erabiltzen zituztela esaten digute eta markatzeko teila puskak sartzen zituztela. Hauek ateratzerakoan azaltzen zirenean, besteena hasten zela adierazten zuten.

Zubietako inguru guztietan sakabanatuak zeuden, hortaz kisulbiak, han eta hemen, baina esan dugunez kisu harriak alde batean bakarrik.

-Kisulabik hemen, alde hortan izaten ziren gehienak- esaten dute anaiak -kisu harria hemen da eta, hemendik haraino mandoz eramaten zen -Ekaitz aldera-.

Gartzikoak egin zuten behin landa gaineko pareta hortatik kisu harri hartu, zubi bat uhalde gainean egin eta bizkarrean pasa pionekin, gero mandoetan Itziarreraino eramateko...gaur egin gehar balitz hori!!

-Behin egin omen zuten kisulbi berezi bat ere, hemengo aldean, Idiate borda inguruan, nonbait. Egurrak tente paratu lurra kontzeko, labe barrenian, segituan urratu zen labea izan zen, eta kisua manitua ateratzen zen, azpitik ura zuen eta -eta parrez lehertzen kontatzen zuten- Hiru aldiz erori zen kisulbia! Berriz egin, berriz erori...Barrakilokoa berriz, lehenbizi ikatza egin, gero kisu harriak urrutitik ekartzeko...

Aspaldiko kontu zaharren giroa sortu da gosaltzen ari garen bitartean, zatoari musukatzen...

-Kisua ere, urtero egiten genduen, eta zakuetan sartuta leretan jeisten genuen, askotan lerak hautsi, deskargatu eta berriz patzen aritzen ginen, gero karrutxoan, lau erruedako karrutxo batean, landara eramateko, kisuztadura egitera...

-Gaur egun ez, traktorez jeitsi, zabaldu eta listo...
Bainan ez dira adineko bi anaia hauek lehengoari begira geratuko, aurrera beti, ekin eta ekin...

-Gaur errezena hor, zubi ondoan diren labeetan egitea izanen zen -dio Patxikuk Migelen baietzarekin- kamionetan ekarri kanteratik harri txikitua eta egurra traktoreetan... Aiuntamentukoak kargo hartu beharko zuela esan nien eta ez zitzaien gaizki iruditu, hori bai, errealitatetik behin ere urruntzen ez dena lau soziona dela esaten zuten eta lurra beste batena. Bost lagun hauei zerbait ordaindu beharko ziela adieraziz.

Berriketaz, berriketa hiru egun joan dira. Argazkiak ateratzeko epea, eta kisua noski, gure harridurarako ur tantan arrotzen diren harriak. Goizetan igotzen ginen bakarrik, gosari arrimura, baina arratsetan oroitzen ginen ere, hango eke lainuak ikusirik. Bi anaietaz oroitzen ginen, parrez lanean, ondo bazkatuz eta hobeki edanez goi hartan ziren anaiak. Heuren buruarei ezarritako desafio hau bete dute, auskalo zein hurrengoa!

Sunbillako agintari putreak

Nahi ta ez, hainbeste eta hainbeste lerro irakurri behar izan dugu pasatu berri den hauteskunde garai honetan gure komunikabide guztietan, ez bait zen agintari nahien melelokeri eta eskeintza faltsua besterik. Orain guri datorkigu, entzuleei, haien esamesei erantzutea nolabait.

Hasiko bagina heuren ekintza guztiak aztertzen ez genuke aldizkari osoan lekurik aski izango astakeri guztiei erantzuteko. Horregatik ez da hori izango hemen nire eginkizuna, egindako zenbait ekintzen itsuskeria azaltzea baizik.

Nire inpotentzia, herriko zenbait agintari nahien maltzurkeriak ikusiz "heurek beren programan edo agirian azaltzen zuten bezala NAHIKERIA", azaldu nahi nuke Euskal Herri osoak edo guttienez Bidasoa bailara honetako biztanlegoak bere iritzia izan dezan.

Batzuentzako estutasunak heltzen dira lau urtetik behin eta oroitzen dira herriko biztanleen beharraz eta abar, boterea hartzeko amorru bakarrarekin. Horrela izanik ezin zitekeen gehiagorik gerta Sunbillako talde baten lan itsusiagorik baino. INDEPENDIENTES (I) izenean azalduz udalako boterea nahiean, edo hobe esanez goian aipatzen dudan bezala NAHIKERIAN, etxeetara joan eta botua eskatuz gain ez ziren konforme eta N.A.N. (karneta edo D.N.I., nahi duzuen bezala deitu) eskatu ere egin zioten, heurengan geldituz botatzeko ardura, honek dakarren tramitazio guztiarekin.

Jendeen jakinerako, esan behar bazirela bertan bizi diren 18 botu korreoz, eta hauen artean normalak ez direnen botuak ere bai. Ez da arritzekoa hau gertatzea kontuan hartzen badugu gure postaria aurreko kandidaturan talde bereko alkate gaiaren emaztea dela. Ez balitz horrela ezin izango zuten tramitazio ho-

ri egin, eta honek dakarren lanarekin, zihur bakoitzak berak egin behar izan balu ez luketela erdiak ere botatuko korreoz, bakarrik daukan burokraziarengatik.

Gero sobreak ireki ondoren emaitzak, eta ikusi besterik ez, APri 100 botutik gora eta beste espainiarrei ia beste hainbeste.

Kezkatzen nauena hauxe da: nola uler daiteke apolitikoen izenean agertu eta gero herritik kanpoko agintariei, euskaldunen etsairik haundienei botua ematea. Honekin ateratzen dudan ondorioa, hau da: hauek izen horrekin ateratzen direla beren pentsakera ez ezagutzeko, baina argi dago nondik nora dihoazten.

Beste kezka, nola osatzen dituzten zerrendak, langileekin, baserritarrekin eta abar; baina osagai bezala eta oso atzean, burukideak alegia aurrean. Nola botatu daiteke UPNri edo APri, hauek izan baldin badira eta dira auskaldunen, baserritarren, langileen zapaltzaile eta etsairik haundienak, beti gure bizkar bizi izan direnak?, edo uste al duzue Fragak edo Aizpunek konponduko dizkigutela gure esne, txerri, hazienda edo barazkiren arazoak?, ez ote da hau nahiko maneiatua burukide batzurengatik beren interes pertsonalengatik eta besteak hor titereak bezala?





Gustatuko litzaidake erantzungo balidate zuzentzen dizkiedan galderak, ea zergatik horrelako jokaera eta gorrotoa euskararekiko den guztiari, beren jatorrizko hizkuntza izanik zailtasunak izanez beste hizkuntza batetan komunikatzeko jakinaren eza edo zailtasunarengatik.

Herriko abertzale bat.

EUROPA, DESERTU BAT?

Orain dela egun batzuk EGINen artikulo bat atera zen honelako tituloarekin: "Afrikako desertuak Europaraino heltzen ari dira". Desertuak handiagotzen, zabaltzen ari diren ideia hutsak ere bildurtu edo ikaratzen nagoelako jarraitu nuen irakurtzen. Eta beste gauzen artean zera zion:

Afrikan urtero 2'3 milioi hektarea lur-idorra bihurtzen direla. Eta urtero ere, baso diren 300.000 hektarea galtzen direla. Batetik zuhaitzak botatzeagatik eta bestetik 10.000 hektarea besterik ez delako landatzen.

Mundu mailan esate baterako, urtero basoaren 11'5 milioi hektarea galtzen omen dira.

Zergatik gertatzen den fenomeno hau ere adierazten zen, hain zuzen ere populazioaren gehitzeagatik eta ondorio gisa behar gehiago dagoelako, batez ere ur konsumoan, egurra, energia eta janaritan.

Gobernuak eta zenbait instituzio gauza honetaz arduratzen hasi beharko lukete. Baita udalak ere, mendiak, eta basoak zainduz eta bizkortuz lan egin. Gainera, informazio zabalagoa egon eta batez ere energi alternatiboak kontutan hartu eta bultzatu.

Energi kontu honetan, esate baterako zenbait herrialdetan ez da erabiltzen egurra etxea berotzeko. Egurrak balore handiagoa duelako gorde egiten dute eta beste sistema bat montatu etxeak epel edukitzeko.

Hain zuzen ere ongarria erabiliz, beroa lortzen dute. Eta hori bezala izanen dira hainbat eta hainbat aurrerakuntza, batez ere NATURA EMANKORRA IZATEKO.

A.Z.

Maldaerrekako Osasun Diagnostikoa

1986ean, Malda-Errekako sanitario eta herritar batzuren artean inguru honetako osasun-diagnostikoa egin zuten.

Lan honetan, osasunean eragiten duten zenbait egoera aztertzen dira, horrela: bertako egoera fisiko-geografikoa, demografia, eskaera asistentziala, egoera sozio-ekonomikoa, osasun zerbitzuen egitura eta funtzioak eta baita ere nabarmen diren arazoak agertu.

Arazo horiek anitz izan arren hemen azalduko ditugu. Zerrenda honetan arazoei ez zaie oraindik lehentasunik eman, argitara atera besterik ez dira egin. Diagnostiko honek eskatzen duen segida zera izanen da, arazo batzuei, garrantzitsuei hain zuzen ere lehentasuna ematea eta irtenbideak bilatzea.

Detektatu diren arazoak:

1.- Baserrietatik eta baserrietara heltzeko zailtasuna. (Populazioaren %11)
2.- Bertako herrien artean garraiabide eskasak.
3.- Erripidetan puntu arriskugarriak: Narbarte eta Sunbillako zeharbideak.
4.- Familiaren egitura: gaur egungo eskariari ez dagokiona hain zuzen ere.
5.- Emakumezko gazteen migrazioa: Tasa hazkorren jaitsiera edo beheraldia.
6.- Ikerketa demografikoak egiteko dauden datuen fidagarritasun eta kalitate eskasa.
7.- Zailtasunak, gehitzen ari den populazio adintuari kalitatezko asitasuna eskeintzeko orduan.
8.- Istripuak: lanekoak, lanetik kanpokoak, trafikokoak.
9.- Eskatzen den aditasunaren programazio eza: berrikustapenak eta kronikoak.
10.- Batetik, sanitarioen talde lanaren hutsunea eta bestetik diagnostikoen eta terapeutikako eritzien batasun falta.
11. Minbizi ginekologikoa.
12.- Eritasun kardiobaskularrak.
13. Endokrinopatien bereizketaren beharra.
14.- Lan-Osasun arloarekin hartueman eza. Lan arazoetaz jakintasun eza.
15. Etxebizitza askoren egokitasuna eta higiene egoera eskasa, batez ere baserrietakoa.
16. Hiri barrutan zabortokiak.
17.- Baserri batzutan argi-elektrikorik ez.
19.- Saltsaile-ibiltarien kontrol eza.
20. Langabezi tasa garrantzitsua.
21.- Zerbitzu laguntzaileen artean Udalen ekintza amankomunik ez izatea.
22.- Gaur egungo nekazaritzaren esplotakuntzan errentabilitate ttikia.
23.- Hizkuntza arazoak. Bertan lanean ari diren sanitario batzuk ez dakite euskaraz, 2. eta 3. mailan ere, hau da Anbulatorio eta Ospitaletan, ez da kontutan hartzen komunikazioa hizkuntza honetan.
24.- Orokorrean, heziketa maila txikia eta bereziki sanitario arloan. Orokorrean eta eskola-mailan batez ere, osasun heziketaren beharra.
25.- Herri mailako egoeratan herritarren partehartze eta interesgarritasun eza.
26.- Herrietako kontsultetan akatsak.
27.- Alderdi honi dagokionez, 2. mailako espezialisten homogenotasun eza. Kontsultetako ordutegia ez da egokitzen autobusenekin eta horrek zailtasunak sortzen ditu kontsulta horiek egiteko orduan.
28.- Bertako folkloreaz aparte, kultura bultzatzeko ekintzak falta dira.
29,- Sanitarioen ezagutza zientifikoen gaurkotasunaren falta.
30.- Material sanitarioren errekurtsoen eskasia.

Ez dira gutxi-gutxi ere. Batzuk, sanitarioek konpondu dezaketenak dira baina gehientsuenak, herritar, udal eta azken finean Gobernuaren eskutan daude. Beraz, larrienak berezi eta Malda-Errekako osasun egoera hobetzen saiatu.

Zizta

ERREKA ERI



kontxexi eta oxemielen marmariak

-Itzalean, Kontxesi?

-Bero zakar honek bota nau, Oxemiel. Lanerako gogoa ere kendu dit.

-Zuk ere, nik ezezik, sasoirik hoberena joana.

-Ze sasoi eta ze demononio? Ajez beteta zauden agure zahar hori! Denok zu bezala gaudela uste duzu?

-Ez haserratu, emakume. Intentzio txarrik ez neukan.

-Intentzio on hutsez ez da dena moldatzen. Nolanahi den, zure intentzio ona baino hobe nuke oinak ur hotzean sartzeko aukera banu.

-Emakume, ez daukazu erreka hain urrun.

-Erreka? Ez diozu begiratu zubia igarotzean? Bere buruari eusteko ere ia-ia ez darama urik. Amuarrainak, moteldurik, bizilekurik gabe gelditzen ari dira.

-Bai, hori egia da. Atzo bertan ikusi nuen hamar urteko mutikoa eskutan amuarraina zeramala. Eta

eskuz harrapatu omen zuen, presapean.

-Eta dabilen edo dagoen ura, ubel eta usaindua, zikinkeriaz eta bere geldikerian usteltzen ari da, eta eritasun mintegi bihurtzen.

-Beno, beno, Kontxexi, hainbertze ere ez da izanen beharbada. Ez ote zara gauza haizatzen ari?

-Haizatzen? Hara bestea! Zuk, behar bada, intentzio oneko gizona zarenez gero, ura nik baino garbiagoa ikusten duzu.



-Adarra jotzen ez hasi orain. Urak zikin eta erdi-ustelak daudela badakit. Nik erran nahi dudana zera da: lehen horrelakoak ikusketu ditugula.

-Eta tifus eta ez dakizkigunak jasan ere, bai, ur zikinagatik. Ez zara oroitzen hiruehun herritar ohatzeraturik egon zirenaz? Ez zara, bada, jaio berria!

-Oroitzen naiz, bai, Kontxexi, oroitzen naiz. Baina zuk ere mihi hori gozatzen ahal zenuke.

-Garbi eta aitzinetik gustatzen zait niri, Oxemiel; badakizu. Eta hariari jarraituz: zer derizkiezu errekako plastikoez? Altza adarretatik plastikozko zatarrak zintzilik, ur bazterrean plastikozko boltsa gorriak eta zuriak, urbide-erdi-erdian plastikozko botila haundi urdin horia. Badirudi erreka inauteritarako erabili nahi dugula, baina urte guztian. Hain irrigarri dago...

-Plastikoaroan bizi gara gaur, Kontxexi, plastikoaren erregetzan, plastikoz inguraturik. Zer nahi duzu bada? Horrela da gaur mundua.

-trrrrrr -trrrrrr -trrrrrr

-Joan beharko dut, Oxemiel. Etxean inor ez dago eta telefonoa hartu beharko dut.

KARRUNKO

Nik ez nuen karrunko ezagutu baina esaten didate zaldi harek, solas ezik beste guztiak bazezkiela, eta hura animalea baino zerbait gehiago bazela.

Karrunko etxean sortua zen eta txiki txikitatik hasia zen bere barrabasakeriak egiten. Ez zen animale tzarra ez, baizik aski tresna. Leku guztietara sartu behar izaten zuen bere muturra. Harendako etxe guztiak bereak bezala ziren; aldi batez Xaindueneko etxekoandrea bazkaria prestatzen ari zelarik soinu bat sentitu zuen bere gibelean, burua bueltatu zuen eta hantxe zegoen lasailasai sukalde erdian gure Karrunko ez dakit non demontretik agertua, begi haundi batzuekin andreari begira.

Baina Karrunko ez zuen edonork moldatzen ahal. Ez, zaldi hura aski "espeziala" zen, hitz batez errateko, Karrunko matxista bat zen. Zenbait aldiz amatxi koleratua sartzen zen sukaldean erranez: "irri baino burla gehiago egiten dit". Eta egia zen, Karrunkok gizonak errespetatzen zituen, bainan andreak...

Egun batez etxeko atean ari ziren solasean amatxi eta bere koinata (izoa





Luziana, aski andre kalaxka), eta hain aferatuak ari ziren biak ez zirela ohartu Karrunkok ixil-ixilik burua ateratzen zuela bere kortzelatik eta poliki-poliki bere ezpainekin andre kalaxkaren mototsoa urratzen hasi zela; ohartu zelarik izoa Luziana, haren garrasiak onak ziren...

Baina Karrunkoren eginaldi famatuena igaro zen arratsalde batez amatxik eramaki zuelarik zaldi saskiak pareta zaborrez kargaturik: amatxik sokatik hartua eramaki zuen Karrunko baina, landako ateka ixteko, laxo utzi zuen momentu bat, eta orduan Karrunkok bere burua libro ikusi zuelarik, aire aldegin zuen trostan landa behiti. Amatxi ohartu zelarik hasi zen lasterka haren ondotik baina Karrunkok orduan eta gehiago kurritzen zuen. Mugimendu harekin saskiko zaborrak animaleko errautsa ateratzen zuen eta zaldi bat lasterka baino hegazkin bat iduri zuen "propulsión a txorro"rekin, ez zen zaldirik ageri errauts bide bat baizik. Amatxik ikusi zuen horrela ez zuela deusik eginen eta beste metodo bat pentsatu zuen: esku etsiarekin hurbiltzen hasi zen oihu eginez: -Karrunko, Karrunko, begira tori", eta orduan Karrunko gelditu zen eta mantxo hasi zen hurbiltzen amatxiren eskutik ogi puska jatera (horrela ikasia zuen), baina ikusi zuelarik eskuan ez zuela deus ere puztarka bat airean bota, buelta eman, eta zaborraren errautsean berriz inguratua trostaka landa behiti joan zen. Orduan amatxik ikusi zuen ez zuela deus egiterik eta lurrean jarri zen esperatzen "Monsieur Karrunko" noiz aspertu zen bere jostaketaz. Arratsalde hartan amatxi berriz etorri zen esaten: "irri baino burla gehiago egin dit zaldi tzar horrek".

Urteak pastu ziren, eta beti bazen zerbait Karrunkoren gain kontatzeko. Baina egun batez deliberatu zuen kamioia erostean zaldirik ez zuela behar. Eta horrelaxen pena haundiz Karrunko saldu zuten Baionako gizon bati. Han ibili zen karro txiki batekin gaseosa saltzen karriketan barna. Han ere segitu omen zuen bere trastekeriak egiten eta jakin genuen aldi batez eskapatu omen zela eta egun batzuen buruan harrapatu zutela Senperen lasai-lasai landa batean belarra jaten.

(Zugarramurditik)

Ikustezinezko untxia

Behin batean bai omen zen untxi bat "Bigotes" izena zuena eta azanahoriak azkarki gustatzen omen zitzaizkion. Beti bezala gosea zuen.

Egun batean sartu zen Alizia nekazariaren etxeko leihotik, eta azanahoriz betetako sare bat hartu zuen.

- Etorri ona!- oihu egin zion Aliziak.

- Ez nauzu harrapatzen!- Burla egin zion untxiak.

- Itzul ieizaidazu azanahoriak!- Esan zuen Aliziak. Baina untxiak ez zion kasorik egin eta basora sartu zen azanahoriak jatera, zuhaitz baten itzalean.

- Ze iduri ona duten! Erran zuen untxiak. Baina jaten hasi zenean, azanahoriak handitzen hasi ziren eta horrela "Bigotesi" bidea itxi zioten. Orduan azanahoriak "Bigotes" jotzen hasi ziren.

- Ay! Ay! Oihu egin zuen untxiak. Zergatik jotzen nauzue?





-Oso gaizki portatu zeralako jotzen zaitugu - esan zuen azanahori batek. - Behin ere ez da hartu behar besteen gauzarik.

Bat batean, genio batek esan zion untxiari berak bere magiarekin ikustezina egingo zuela baina kondizio batekin txano gorri bat ekartzekotan. "Bigotesek" baietz esan zion.

Orduan, untxia joan zen herrira eta gauzak hartzen hasi zen. Baina arratsaldean genioak untxiarekin topo egin zuen eta galdetu zion txanotaz. Orduan, genioak berriro egin zuen magia eta untxia ohar tu gabe ikusteko moduan utzi.

Untxia berriz joan zen herrira ebastera eta denak harrika hasi zitzaizkion. Holaxe bada, untxiak lana harrapatu zuen, eta gero azanahori azkar jaten zituen.

Maider, Iratxe, Natali, Amaia, Jaioene.

GOIZUETAREN deskribapena



Goizueta arrunt polita da urte guztian, baina udan politena.

Gure herritik Erreka Haundia igarotzen da eta garbi garbia da.

Goizueta mendi askoz inguratuta dago. Esate baterako: Unalbide, Arriurdiñeta, Amonamotz, Loitzate, Hirumueta (eta Goizueta, Leitza eta Berastegiko muga), Manduegi (Goizuetako mendirik altuena), Leuneta eta Etxolla, besteen artean.

Goizuetako jendea udan asko joaten da erreketara igeri egitera eta kanpoko jendea etortzen da egun batzuk igarotzera.

Hemen jendeari asko gustatzen zaio ehizan eta arrantzan ibiltzea. Erreka asko dago eta denak oso garbiak. Adibibez:

Erreka Haundiak iparraldetik hegoaldera erdikatzen du gure herria. Ekialdetik erreka hauek sartzen dira Haundira: Zumarresta, Porrosta, Ikatzola, Anatxuri eta Añarbe (bere urak Donostiako beharrak hornitzen ditu). Mendebaldetik: Urdiñola (Leitzako mendiekin egiten du muga), Manduegi (indar haundiko ur garbiak), Alduntzinsoroko erreka eta Isillas erreka.

Goizuetako herriaren inguruan badaude beste herri asko:

Iparraldetik Orereta, Oiartzun eta Lesaka; hegoaldetik, Zubieta, Labayen, Erasun, Ezkurra eta Leitza; sortaldetik Arantza, eta, mendebaldetik, Berastegi Elduaien eta Arano.

NEREA MIRANDA. 6. maila. Goizueta.

Behin bazen, zuhaitz bat oso triste zegoena. Ez zuen lagunik, eta haurrak beti igotzen ziren zuhaitzera eta moztu egiten zizkioten adarrak. Egun batean alkatea joan zen paseo bat ematera eta ikusi zituen haurrak adarrak mozten zuhaitzari. Alkatea joan zen haurrengana eta esan zien ez mozteko adarrak. Haurrak jeitxi ziren eta joan ziren etxera. Bertze egunean alkateak paratu zien haurrei tranpa bat. Haurrak zuhaitzera joatean tranpan erori ziren, haurrak beldurturik joan ziren korrika. Gero alkatea joan zen haurrengana eta esan zien ez mozteko zuhaitzari adarrik gehiago.

Haurrak joan ziren zuhaitzarengana eta barkamena eskatu zioten alkateari zuhaitzaren aurrean alkateak barkatu zien eta zuhaitza oso pozik geratu zen.

Udan neska mutil asko joan ziren zuhaitza ezagutzera, zuhaitzak poza ematen zuen eta. Zu egun batean triste bazaude joan zaitez zuhaitzarengana.

Laura Juanenea Irurueta
(Doneztebeko eskolak antolatutako ipui lehiaketaren sasridun bat)



ZUHAITZ

tristea

KEPA bere txakurrarekin

Kepak galtza bakeroak ditu, jertseia beltza, etxe haundi batean bizi da eta txakur txiki polita du. Txakurra kolorezkoa da, hiru kolore ditu: beltza, txuria eta marroia, bere ama dena txuria da eta bere aita marroia.

- Zer moduz txakur? -erran zuen Kepak.
- Guau, guau oso ongi, eta zu? -txakurrak.
- Nik katarro haundia dut baina bestela ederki.
Behin batean bere txakurrarekin zihoala, Pantxitokin topatu zen, bere laguna zela.

- Zer moduz zaude goiz honetan? -erran zuen Kepak.
- Gaizki samar, mendira joan naiz ehizara eta ez dut ezer harrapatu. -Pantxitok.

Pantxito bere etxera joan zen, baina bere amak mendira bidali zion, eta ez etortzeko zerbait harrapatu arte.

- Baina ama!
- Ezta ama edo amo! Zoaz hemendik.

Pantxito goibel atera zen etxetik eta Kepak ikustean harat abiatu zen.

- Zer duzu hain goibel Pantxito?
- Amak mendira bidali dit berriro heizera eta zerbait harrapatu arte ez itzultzeko etxera, buuuaaaaaaa, buuuaaaa
- Ez egon horren goibel, zertarako daude lagunak?
- Batak besteari laguntzeko.
- Ba nik zuri lagunduko dizut.

Mendira joan ziren, ehizan hasi ziren eta untxi bat, gero bi eta hiru. Hain altxor haundia harrapatu zutenez, Pantxito, oso pozik paratu zen eta lurrean zoloka egin zuen.

Pantxito pozik itzuli zen etxera eta denak pozik bizi ziren. Eta Keparen txakurra haunditu zen eta marroia geratu zen bere aita bezala betirako.

BEATRIZ MIQUEO

Laberintoko atarian izan zinen
izarra libre kolorezko begiakin bere ondora
ingurura begiratzen zuela
zure ahotik suzko egun batean sartu nintzen
zure eskutitza zaharra hautsi nuen
haur bati idatzi nion
eta gero, zure izena gogoan loak hartu ninduen.



Udalgizon berriei

Doinua:"Ari naizela, ari naizela..."

Herri Etxeko aulki hoietan
jende berria da jarri
zer egin behar luketen hoiek
agertuko diet sarri
zuen eskutan duzue orain
hemengo hainbertze herri
jakin zazue bestsolariak
duen ustearen berri

Aspaldi hontan bada gauza bat
fuerte kezkatzen nauena
gure auzoan basurarekin
beti pasa izan dena
biltzailerik ez omen dago ta
bazterretara gehiena
abudo dugu eguna kakak
irentsiko gaituena

Egia erran natura dugu
egiazko arazoa
gizakumeak ez dio egin
behar litzaken kasoa
zikinkeriaz izugarria
egin zaion erasoa
noiz arte utzi behar duzue
hiltzen gure Bidasoa

Etxe-kaleak ta berdin plazak
kiroltoki karretera
beharturikan zaudete xuxen
horri erreparatzera
gauzak pentsatu ongi ta gero
animatu egitera
axolagabekeriaz ez utz
gure herria galtzera

Ostatua da nik dakidala
kasik bakarra biltoki
ta herritarren formazioa
doaie hagitz poliki
bertze gisako ekitaldiak
ere gogoan eduki
kulturagintzan jokatzea da
beharrezko ta egoki

Gure hizkuntza aipatu eta
dut sentipen bat mingotsa
eskuetatik joaki zaigula
non ote daukagu lotsa
eta errua gurea dugu
horra kontuaren funtsa
zenbat hitz haundi egiten den ta
eskeintzetan berriz, hutsa

Errextasunak, ez dakienak
aisago dezan ikasi
ta euskalduna alfabetatu
dadila lehendabizi
etsenplu eman eta lagundu
euskara bizi erazi
serio hartu nahi izanez gero
zeuen burutikan hasi

Lanikan gabe larrialdian
dabilenik bada hortik
hori konpondu beharra dago
arazoaren errotik
herritarraren premia zein den
ezagutu hurbiletik
ta zuen esku baldin badago
konponbidea ondotik

Ez ahantzi inoiz:zuek zarete
bertze denen ordezkari
bete beharra hortxe duzue
hainbertze lan ta eskari
ez bedi izan, noizpait bezala,
txori haundienen kabi
Herri Etxeko ate ederrak
zabal herri osoari

Ez naiz kontseju emate hori
gustoko duen gizona
nola nahi ere, hemen erranak
ez dut uste diren broma
zuen talentuz gure herria
gobernatu eta doma
izan zazue, horretarako,
umore ta zoriona

KAPI

MOMENTUAK

Din-dan-din,
hiruak jo dute, eliz kanpaiak hiruak jo dute,
hasitzekoa naiz.

Boligrafo eta papera hartu dutenean, ipuia idazteko asmoa ote nuen?
Seguraski baina, ipuia da bizia,
bizia ezta paper batean ezartzen.

Karreteran kamioi zahar bat eta hautsez estalitako lanrrober bat guruztatu dira -bakoitza bere aldetik ongi, noski-, eta erreka bazterrean urkantua zen moztu badute ere, haizeari txopo eta lizar hostoak danzan jartzen lagundu diote.
Denak momentuak dira.

Bart, mundua osorik ia jaten nuen,
babeslekurik ez, orain,

Jangoikoak ote daki
nere barren hontan sortzen den olatua
zer ilargi iragan?

Amodioaren desio...maitasun beharra...
Ez du onbiderik.
Beraz, ni naiz.

Hire amorantea izatea nahi nuke,
amodioak daduzkan ezti gozoetan.
Nigandik urrutira burua ez bazenu
ausartuko nintzateke laguntza eskeintzera..

Gorputzak ferekatzean
pekatua badago,
jeitsi dedila norbait bihotzak zabaltzera,
odol hutsa hartuko
ezpain eta begietan,
bai mirari ederra usoa altxatzea.

Odolak balio du gorputzak bero kontzeko,
zainak, urdaila... eta garunetan?
ideiak eta asmoak,
gogoak, desioak,
beldurrak eta ausardiak...

denak babestu behar!

ENPIN

BAKARRIZKETA

Asisko·87

175 pzta.